

**GORPUTZ ADIERAZPENAREN ETA EMOZIOEN
LANKETA HAUR HEZKUNTZAN
IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN BIDEZ
GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: de la Fuente Rivas, Naroa.

Zuzendaria: Martínez Abajo, Judit.

2021

LABURPENA

Jarraian topatuko duzun txosten idatzi honetan, **Haur Hezkuntzako** gela batean eskainitako **Ikaskuntza-Zerbitzu** baten inguruan irakurri dezakezu, non zerbitzua **gorputz adierazpenean** eta **emozioetan** oinarritu den, bi hauen arteko erlazioa erakutsiz. Lan honen bidez, gorputz adierazpenak duen garrantzia erakutsi nahi da, baita emozioen lanketarekin duen lotura ere. Lan honen helburu nagusia Ikaskuntza-Zerbitzuaren metodologia Haur Hezkuntzan eraginkorra den bermatzea da. Modu honetan, haurrek autonomia, inizatiba, motibazioa, kooperazioa eta parte hartze aktiboa lortzen duten aztertuko da. Horretarako, gorputz adierazpenean oinarritzen diren jarduera desberdinak proposatuko dira, honen bidez emozioak nola landu ikusteko aukera eskuratuz. Azterketa horretarako Ikaskuntza-Zerbitzua iraun duen bitartean informazioa narrazio etnografiko batean jaso da. Informazio horrekin analisi sakon bat burutu da, non emaitza ezberdinak eskuratu diren. Emaitza horiei esker, Ikaskuntza-Zerbitzuaren metodologia eraginkorra eta esanguratsua dela egiaztatu egin da, hainbat balore garatzen laguntzen duelako eta talde lanean hazitzeko aukera eskaintzen duelako.

Hitz gakoak: Ikaskuntza-Zerbitzua, Haur Hezkuntza, gorputz adierazpena eta emozioak.

RESUMEN

En el siguiente informe escrito podrás leer sobre un **Aprendizaje-Servicio** realizado en un aula de **Educación Infantil**, basado en la **expresión corporal** y las **emociones**, demostrando en su forma la relación entre ambos. A través de este trabajo, quiero mostrar la importancia de la expresión corporal, así como de su conexión con el procesamiento de las emociones. El principal objetivo de este trabajo es garantizar que la metodología del Aprendizaje-Servicio para Educación Infantil sea adecuada. De esta forma, se estudia si los niños y niñas logran desarrollar su autonomía, iniciativa, motivación, cooperación y participación activa. Para ello, se propondrán diferentes actividades con relación a la expresión corporal, a través de las cuales, se obtendrá la oportunidad de ver cómo trabajar las emociones. Toda la información recogida durante el proceso Aprendizaje-Servicio, ha sido proyectada en una narrativa etnográfica. Se ha realizado un análisis en profundidad con la información, obteniendo diferentes resultados. Gracias a estos resultados, se concluye que la metodología Aprendizaje-Servicio es eficaz, ya que ayuda a desarrollar los valores y a promover el trabajo grupal.

Palabras clave: Aprendizaje-Servicio, Educación Infantil, Expresión corporal y emociones.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Marko teorikoa	4
2.1. Ikaskuntza-Zerbitzua hezkuntzan	4
2.1.1. Ikaskuntza-Zerbitzuaren faseak	5
2.2. Gorputz Adierazpena	6
2.2.1. Gorputz Adierazpenaren helburu nagusiak	6
2.2.2. Haur Hezkuntzan ematen diren etekinak	7
2.3. Emozioen lanketa gorputz adierazpenaren bidez	9
3. Helburuak	13
4. Metodoa	14
4.1. Testuingurua eta partaideak	14
4.2. Erabilitako tresnak	15
4.3. Informazioa aztertzekeo prozedura	16
4.4. Esku hartzea	18
5. Emaitzen analisisa	26
6. Ondorioak	33
7. Hobekuntza proposamenak	35
8. Erreferentziak	36
9. Eranskinak	41
9.1. Narrazio etnografikoa, landa oharrak eta ebaluazioa taulak	41

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan (GrAL) honetan, Ikaskuntza-Zerbitzuaren (I+Z) bidezko metodologia erabiliz, Gasteizko eskola batean aurrera eramandako proposamena agertuko da. Ikaskuntza-Zerbitzu honi esker, hainbat helburu bete, emaitza ezberdinak analizatu eta ondorio ezberdinak eskuratu dira.

Gasteizko Zabalgana eskolan burutu da proposamena, lau urteko gelan hain zuzen ere. Bertan, Ikaskuntza-Zerbitzuaren bidez proiektu bat proposatu da, gorputz adierazpenean eta emozioen garapenean oinarritu dena. Oso ideia interesgarria izan da bi kontzeptu hauek elkartzea, gorputz adierazpena lantzen den bitartean emozioen lanketa ere eman daitekeelako. Saio ezberdinak proposatuz, haurren autonomia, motibazioa, inizatiba eta parte hartze aktiboa areagotzea helburu du I+Z honek.

Gainera, aurten, gizartea egoera ez ohiko batekin topatu da, non biztanle guztiongan eragina izan duen, Covid-19 dela eta. Konfinamenduaren ondorioz haur hauek ere eraginak izan dituzte, beraz, eskolan gorputza astintzeko, adierazpenean murgiltzeko eta sentitzen dituzten emozioak identifikatzeko tresnak eman zaizkie proposatutako I+Z honetan.

Haurrek bazkalosteko orduetan jaso dute zerbitzua, jarduera ezberdinak burutu direlarik. Jarduera horiek gorputz adierazpenean oinarrituak izan dira, haurrak haien gorputz eskema sakonago ezagutzeko, barruan dutena adierazpenaren bidez azalarazteko, haien artean hobeto ulertzeko, dramatizazioaren munduan murgiltzeko eta hitzezko zein ez hitzezko komunikazioan trebatzeko. Horrez gain, emozioak ere ikutu dira proiektu honetan, batik bat gorputz adierazpenaren bidez emozioak azaltzen direlako eta Haur Hezkuntzan lantzea ezinbestekoa delako.

Gasteizko Haur Hezkuntzako Graduko eta, zehatz-mehatz, Adierazpena eta Komunikazioa Dramatizazioaren bidez minorreko ikaslea izanik, gorputz adierazpena sakonago ezagutzen da eta duen garrantziaz ohartzeko aukera dago. Beraz, lan honekin argi utzi nahi da gorputz adierazpena eta hezkuntza emozionala haurtzarotik lantzea funtsezkoa dela, etorkizunari begira egoera ezberdinekin topatu ezker baliabideak edukitzeko eta etorkizuneko gizartearen oinarriak ezartzen hasteko.

Txikitatik antzerkiak egitea eta jendea imitatzea biziki gustatu zaion pertsona bati, Haur Hezkuntzako edukietan gorputz adierazpenari eta emozioei garrantzi gehiago ematea eskatuko luke. Horregatik, GrAL hau horretan oinarritu da, Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiaren bidez.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. IKASKUNTZA-ZERBITZUA HEZKUNTZAN

Ikaskuntza-Zerbitzua (I+Z), komunitateari zerbitzu bat eskainiz ikasten den metodo bezala definitzen du Roser Batlle pedagogoak (2011). I+Z; bi ezaugarri osatua dago, prozesuan zehar ematen den ikasketa eta komunitateari eskaintzen zaion kalitatezko zerbitzua. Bi hauek bateratzen direnean sortzen da Ikaskuntza-Zerbitzua. Ikasketa honek zerbitzua hobetzen du, hala nola ikasitakoa ekintzan transferitzen delako (Rodríguez-Gallego, 2014).

I+Z, elkartasunean oinarritzen den hezkuntza eredua da, baloreak eta kultura sustatzen dira eta parte hartzaile arduratsuak hazten dira bertan, komunitatearen beharrak asetzen dituztelarik. Honek norbere garapen pertsonala bultzatzen du, elkartasunean barneratzen direlako eta inklusiorako baloreak ezagutzen dituztelako (Mendia, 2012). Puig et al. (2011) ere aipatzen dute, Ikaskuntza-Zerbitzua hezkuntza proposamen bat dela. Bertan, ikasketa kurrikularra eta komunitate bati zerbitzua eskaintzea elkartzen dira. Gainera, ikasleek baloreak ikasten dituzte, modu aktibo, kritiko eta parte hartzaile batean.

Hezkuntzaren proposamen bat da, ikaskuntza prozesua eta komunitateari ematen zaion zerbitzua proiektu berean bateratzen direlarik. Parte hartzaileak ingurune beharretan inplikatzeko dira, arazo horren hobekuntza baten bila. Hau da, Ikaskuntza - Zerbitzua herritartasunaren hezkuntzara bideratutako metodologia bat da (Batlle, 2011).

Eta ezberdinetan erabiltzen den metodologia da. Calle de los Santosek (2010) Haur Hezkuntzako gela batean aurrera eramandako zerbitzuan antzematen da metodologia hau Haur Hezkuntzako gelara modu askotara eraman daitekeela, ondorio positiboak lortuz eta erakunde oso bati haurrenganako pentsaera aldatuz, haien iritziak balioztatzen direlarik. Honi esker, eskola horrek, Haur Hezkuntzako funtsezkoak diren bi alderdi lantzeko modua aurkitu du, familia-eskola lankidetzeta eta haurren garapen integrala.

I+Z eskola arrakasta eta konpromezu soziala elkartzen ditu, halako proiektu batean murgiltzerakoan autonomia eta inizatiba pertsonala bultzatzen dira (Mendia, 2012). Izan ere, ikasketa mota hau esperientzian oinarritzen da (Batlle, 2011), besteentzat erabilgarriak diren trebetasunak garatuz. Horrez gain, I+Z, ekintza-zerbitzua-ekintza prozesu baten bidez, gizartearen funtzionamendu hobea baten bila joatea ahalbidetzen du (Martínez, 2008).

Sandra Escosak (2014) aipatu bezala, urte horretan publikatua zegoen dekretuari erreparaturik, I+Z hainbat oinarritzeko konpetentzia sustatzen ditu, gizarte eta hiritar gaitasuna besteak beste, ekimena zein autonomia pertsonala indartuz. Baita balioak eta jarrera

sozialak ere; trebetasun psikosozialak garatzen eta gizartean modu positiboan parte hartzeko gaitasuna lortzen.

Pilar Aramburuzabala eta Héctor Opazok (2015) aipatzen duten moduan, Ikaskuntza-Zerbitzuak hurrengo onurak ditu: testuinguru konplexu zein errealetan ikaskuntza esanguratsu eta aberasgarri bat lortzera laguntzen die ikasle zein irakasleei. Horrez gain, metodo berritzaile honek parte hartze aktiboa eskatzen du, eta honi esker, ikasleek motibazio maila altuagoa eskuratzen dute. Gainera, eremu sozial batean lan egiteak hausnarketa sakon bat bultzatzen du norberaren inguruan, eta ez hori bakarrik, baizik eta ikasleen arteko harremanetan badu eragina, kooperazioa ahalbidetuz.

Izan ere, I+Z-k baloreak irakasten ditu, mundu eskuzabalago batean bizitzeko nahia piztuz (Rodríguez-Gallego, 2014). Hezkuntza desberdin bat eskaintzen du eta horri esker ikasketa erabat aberasten da (Mendia, 2012). I+Z proiektuetan pedagogiak eta elkartasunak bat egiten dute, gizarte erabilgarritasuneko hezkuntza proiektua osatuz. Ostera, zerbitzu honek balio ezberdinak sustatzen ditu, hierarkia egoki baten bila doa eta elkartasuna indartzen du (Rodríguez-Gallego, 2014).

Metodologia berritzaile hau hezkuntza-praktika bat da, ikaskuntza-helburuak eta komunitateko zerbitzu-helburuak konbinatzen dira. Helburua, ikasleak, irakasleak eta komunitateko kideak elkartzea eta haien artean ikastea datza, komunitatearen beharrak asetzen dituztelarik (Aramburuzabala eta Opazo, 2015).

Puig et al. (2011) esaten dute, I+Z burutzeak hainbat helburu pedagogiko dituela, jorrotzen den eduki espezifikoa edozein dela eta, hala nola, esperientziatik ikastea, ikaskuntza kooperatiboa bermatzea eta ekintzaren inguruko hausnarketa bultzatzea.

2.1.1. Ikaskuntza-Zerbitzuaren faseak

Pilar Folgueiras eta Marcela Martínez-Vivotek (2015) aipatzen duten moduan, I+Z proiektuak hiru fase ditu; lehenengo fasean beharren diagnostikoa egiten da, hau da ikasleen beharrak identifikatzen dira. Bigarren fasean, I+Z proiektuaren diseinua ematen da eta progresioa ebaluatzen da. Hirugarren fasean, aurreko faseetan diseinatutako eta aplikatutako proiektuaren ebaluazioa ematen da. Puig et al. (2011) esan bezala, I+Z proiektuak hainbat fase ditu, hala nola, errealitatearen diagnostikoa, ekintza plan bat garatzea, proposamena gauzatzea eta emaitza ebaluagarriak lortzea.

Bringle eta Hatcherrek (in Aramburuzabala eta Opazo, 2015), I+Z batek hainbat fase ditu, hasteko plangintza eta sentsibilizazioa, ereduak eta baliabideak bilatzen diren bitartean, hedapena, jarraipena, ebaluazioa eta ikerketa lortu arte. Azkenik, "instituzionalizazioa" bereganatu. Aitzitik, Mequé Edo eta Silvia Blanchek (2016) honela sailkatzen dituzte faseak

I+Z proiektuetan: lehenik eta behin Ikaskuntza-Zerbitzuaren enfokea ezagutu, zentroaren beharrak detektatu, zerbitzu honen justifikazioa burutu, diseinua planteatu, diseinua ezarri eta azkenik errekonozimendua egin.

2.2 GORPUTZ ADIERAZPENA

Gorputz adierazpena gure gorputzak garatzen duen edozein ekintza, keinu edota hitza da, komunikatzeko balio duena (Benitez, 2012). Prozesu bat da eta gorputzak eskeintzen dituen mugimenduen bidez norberaren izaera kanporatzen hasten da, komunikazioa lortuz (Ortega, 2010).

Inmaculada García et al. (2013) bideratzen duten moduan, gorputza, mugimendua eta sentimendua diziplina motorren tresna nagusiak dira. Gorputz adierazpenak helburu adierazgarria, komunikatiboa eta estetikoa du (Romero, 1999). Horrez gain, gorputz adierazpenak norberaren gorputz-eskemaz jabetzea dakar, eta ez hori bakarrik, gorputza osotasunean erabiltzea eta kontrolatzea eragiten du, ideiak eta sentimenduak kanporatzen direlarik (Stokoe, 1994).

Gorputz-adierazpena lantzen den heinean, gorputz hizkuntza eraikitzen da, keinuekin, mugimenduekin, soinuekin, begiradekin, irribarrekin... Haurren garapenean garrantzi handia du gorputz-adierazpenak, hala nola, gorputza erreferentzia gisa hartzen da eta izaeran eragin handia izango dituzten gaitasunak lortzen dituzte (Benitez, 2012).

Ana Moralesen (2010) arabera, gorputz adierazpena landuz barne gorputzarekin konektatzea lortzen da, norberaren esperientzietan baliatuz. Modu honetara, besteekin komunikatzeko modu bat garatzen da, adierazpena indartuz. Umeek gorputz adierazpena lantzen duten heinean haien gorputzaren mugimendua ezagutuko dute eta horrek onurak ekarriko dizkie haien garapen psikomotorrean. Ortegak (2010) ere, gorputz adierazpenaren bidez haurren emozio aldarteak, tentsioak eta gatazkak adierazten dira, sentimendu horiek kanporatzen laguntzen dute.

Hainbat ezaugarri sailkatzen dira gorputz adierazpenaren ikaskuntzaren barruan, hala nola, ikasleek ez dute teknika zehatz bat garatu behar, teknika asko proba ditzakete. Garrantzia prozesuari eman behar zaio, ez amaierari bakarrik. Eta ez hori bakarrik, jarduerak burutzerako orduan ardatza haurren gaitasunaren eta trebetasunean jarrita, aurrera eramango dira jarduera ezberdinak (Cáceres, 2010; Santamaria, 2014).

2.2.1. Gorputz adierazpenaren helburu nagusiak

Gorputz adierazpena helburu adierazgarri, komunikatibo eta estetiko duen portaera motorra da, gorputzaz, mugimenduaz eta sentimenduaz oinarritzen dena. Metodo gisa

sormena eta irudimena sustatzen du eta gorputza psikomotrizitatearekin, afektibo-erlazionalarekin eta kognitiboarekin lotzen duen kontzeptua da (Cáceres, 2010).

Gorputzaren bidez espazioa ezagutzeko aukera dago hainbat helburu betetzen direlarik, hala nola, gorputzaren ideia hobetzea, mugimendu orokorrak zein atalekoak lantzea, autoestimua eta autokontzeptua barneratzea eta nola ez, adierazteko gaitasuna lantzea (Vizcarra, 2014). Gizakiok komunikatzeko tresna esanguratsuenetako bat da gorputza (Benitez, 2012), eta tresna hau erabiltzen denean, gorputz-adierazpena alegia, sentsazioak eta emozioak barneratzeko eta ulertzeko gaitasuna lortzen da (Montavez, 2008).

2.2.2. Haur Hezkuntzan ematen diren etekinak

Haur Hezkuntzan lantzeak hainbat helburu ditu; ume bakoitzak bere gorputzaren ongizatea aurkitzea, garapen pertsonala indartzen doan heinean eta gorputzaren erabateko aurkikuntza ematea, adierazpen-korporala barneratzeko (Cáceres, 2010). Baita gorputzak eduki ditzakeen aukeren, mugen eta adierazpenen ezagutza garatzea, sormenean eta originaltasunean trebatzea eta harreman soziala indartzea. Honek, haurra autonomia izatera bultzatzen du (Ortega, 2010).

Santamariak (2004) ere hainbat ekarpen ematen ditu honen inguruan. Gorputz adierazpenak bi helburu nagusi dituela aipatuz, alde batetik, haurrek ikaskuntza zehatz bat edukitzea eta beste alde batetik, haurraren esperimendu garapenean laguntzea. Gorputz adierazpenari esker, norbera bere burua ezagutzera iristen da. Ikaskuntza horretan, haurrei munduan integratzeko baliabideak eskeintzen zaizkie eta baliabide horiei esker haurrek gorputzaren bitartez komunikatzeko teknikak ikasten dituzte (Cañal eta Cañal, 2001).

Honekin bat egiten du Vizcarrak (2014); gorputz-adierazpenari esker egoerak deskribatzeko aukera aurkitzen du gizakiak, keinu eta mugimenduen bitartez; eta ez hori bakarrik, baizik eta gorputzaren bidez gorputz-adarren mugimenduak ezagutu eta mugak ikasi eta onartuko dira. Moralesek (2010) aipatzen duen moduan, gorputz adierazpenak haurraren garapenean onurak ekartzen ditu, hala nola, irudimenean, sormenean eta munduaren ezagutzean. Hori dena gorputzaren, mugimenduaren eta adierazpenaren bidez lortzen dute.

Maria Teresa Vizcarrak eta Naroa Muruak (2014) gorputz adierazpenaren beharraz hitz egitean urte horretako dekretuan oinarritzen dira, aipatuz mugimendu zein keinu bat egiterakoan pertzepzioa eta adierazpenak lotura bermatzen dutela. **Mugimenduaren** bidez gorputz adierazpen esanguratsu bat lortzen da, hori dela eta beharrezkoa da umeek mugimeduaren aukera guztiak garatzea. Helburua norberaren gorputza eta erabilgarritasun

motorra ezagutzea da, baita espazio-denboraren mugimenduaren faktoreak indartzea (Cañal eta Cañal, 2001).

M^a Carmen Morónek (2011) aipatzen duen moduan, **dramatizazioaren** bidez gorputz komunikazioa garatzen da, parte artistikoa eta sensibilitatea ere estimulatu den heinean. Garrantzitsua da hurrei jardueretan askatasuna ematea, haiek askatasunez jolasteko aukera dutelarik sormena lantzen baitute. Dramatizazioak umeen sormena bultzatzen du, eta ez hori bakarrik, baizik eta adierazpen librerako bideak ematen ditu jolasaren eta esperimentazioaren bidez (Nuñez eta Navarro, 2007).

Dramatizazioa tresna pedagogikoa da, non parte-hartzaileak kontuan hartzen diren, gizarte-trebetasunak azalarazten diren eta ahozko nahiz idatzizko adierazpen-baliabideak sustatzen eta bultzatzen diren (Tejerina, 1999).

Dramatizazioa hezkuntza-baliabide gisa erabiltzeak irakaskuntza-ikaskuntza eredu motibatzaile bat erabiltzea ekar dezake, ezagutza jasotzeko giroa aspergarria eta monotonoa izan ez dadin. Era berean, ikasleak modu ludiko batean gogoz jartzen ditu dramatizazioak, eta alderdi psikologikoak, emozionalak, psikomotorrak, sozialak nahiz sormenezkoak garatzen laguntzen du. Gauzak horrela, dramatizazioa baliabide pedagogikotzat hartuta, konstruktibismoarekin, interakzionismoarekin eta aurkikuntzaren bidezko ikaskuntzarekin erraz lot daiteke gelako jarduna. (Argüelles eta Zelaieta, 2015, 90.orr)

Jolas dramatikoaren bidez, hizkuntza, komunikazioa eta irudikapena lantzen da, hala nola, haurren adierazpen eta komunikazio gaitasunak indartuz. Gainera, jolas dramatikoak lotura handia du gorputzarekin, keinuarekin, jarrerarekin eta mugimenduekin. Horrela, haurrak bere pertzepzioa lortzen du, norberaren ikuspegi bakar hori garatuz (Morón, 2011). Maria Teresa Vizcarrak eta Naroa Muruak (2014) aipatzen dutenarekin jarraituz, jolas dramatikoaren bidez umeak talde lanean aritzen dira, istorioak sortzen dituzte eta komunikazioan trebatzen dira.

Jolas dramatikoan, haurrak pertsonaia, animalia zein objektu batean bihurtzen dira, hala nola, ohikoa ez den mundu batean barneratzen dira non esperientzia berriak bizitzeko aukerak dituzten (Otegi eta Urkijo, 2014). Jolas dramatikoak haur bakoitzari egokitu behar zaio (Eines eta Mantovani, 1980).

Jolas dramatikoari esker, haurren garapeneko hainbat dimentsioa ezberdin martxan jartzen dira eta horrek haurren nortasunaren garapen integralean eragin positiboa ekartzen du. Modu honetara, umeek sormena garatzen dute, tentsioak askatzen dituzte,

gatazka pertsonalak konpontzeko tresnak eskuratzen dituzte, garapen indibiduala eta soziala areagotzen da, espazioaren kontrola ematen da eta fantasiazkoa dena eta errealitatea dena ezberdintzen ikasten dute (Morón, 2011).

Jolas adierazkorrek imajinazioa eta sormena garatzen lagunduko diote haurrari, identitatea eraikitzen eta autonomia pertsonala indartzen (Herranz eta López, 2015). Umeak bere adierazpena eta sormena lantzen du, ikaskuntza soziala eta norberaren portaera ulertzen duelarik (Tejerina, 1999). Honen helburua ahozko adierazpena, gorputz-adierazpena eta adierazpen erritmiko musikala lantzea da.

Adierazpen dramatikoak jarduerak erabiltzeko orduan haurra protagonista izatea lortu behar da, sormenari bere lekua emanaz eta haurren sentzazio eta emozioen garapenean lagunduz, jakin-mina eta deskubitzeko gogoia areagotzen delarik (Morón, 2011). Jolasaren bidez, imitazioa, inprobisazioa, rol jokoak, ipuinen dramatizazioa, talde lana, sortutako istorioak, abestiak, erritmoak sortzea, mozerroak egitea, antzezpenak egitea...mota askotako adierazpenak lantzen dira gozatzen eta ondo pasatzen den bitartean (Alvarez-Uria eta Tresserras, 2014).

Gorputz adierazpena komunikazioaren lehenengo pausoa da eta dantzaren bidez zein musikaren bidez lantzen da. Honek haurrei interesa piztea lortzen du (Morales 2010).

2.3. EMOZIOEN LANKETA GORPUTZ ADIERAZPENAREN BIDEZ

Alabaina, gorputz-adierazpenaren oinarria **emozioak** dira, horregatik, garapen emozionalarekiko ere helburu batzuk bete nahi dira gorputz adierazpenarekin batera, batik bat, estimulazio afektiboa bermatzea eta sentimenduak modu erregulatu batean adieraztea, gaitasun sozio-emozionalak garatzeko egoerak sortzea, talde dinamikak sortzea, haurrei estrategia emozionalak ebatzi ahal diren esperientzia eskaintzea, norberak bere zein besteen sentimenduak identifikatzea eta besteak entzun eta ulertzea (Abarca, Marzo eta Sala-Roca, 2002).

Gizakion bizitza osoan zehar, emozioek oso paper garrantzitsua dute, presente baitaude uneoro eta sentzazio desberdinak ezberdintzera laguntzen dute (Ibarrola, 2013). Gaur egun, hainbat definizio daude emozio kontzeptuaren inguruan; hainbat mendeetan zehar, emozioa adimenaren asaldura gisa definitua izan da, baina definizio honek emozioa eta haren erantzuna aldaketa fisiologiko hutsetan murrizten du (Gallego, González eta Vivas 2007). Golemanek (1995) aldiz definitzen duen moduan, emozioa sentimendu zein pentsamendu bat da, egoera biologikoa, egoera psikologikoa eta hura adierazteko ekintzarako hartzen den joera mota da.

Egoera baten aurrean, erreakzio bat emateko, garunak prozesu konplexu bat burutzen du. Beraz, emozioak adieraztearen atzean, organismoa lanean ari da, emozio desberdinak sentituz, bakoitzaren bizi-esperientzien arabera. Egoera bakoitzak, pertsonaren arabera, afektibitate desberdinak sortuko ditu (Darder eta Bach, 2006). Hau da, objektu zein gertaera berak emozio desberdinak sor ditzake pertsona desberdinenengan, bakoitzak bere ebaluatzeko estiloa duelako (Bisquerra, 2014).

Emozioak lau dimentsio desberdinetan aztertzen dira: dimentsio kognitiboa, fisiologikoa, portaera eta adierazpena (Ibarrola, 2013). Golemanek (1995) hurrengo zazpi emozio basikoak bereizten ditu: amorrua, tristura, beldurra, poza, maitasuna, harridura, nazka eta lotsa. Hala ere, emozio primario hauek konbinatuz beste hainbat sortzen dira.

Zaccagniren (2004) esanetan, emozioak gorputzaren, pertzepzioaren eta motibazioaren prozesuen konbinazio konplexutik sortzen dira, egoera psikologiko global batean bilakatuz. Hauek era positibo zein negatiboan edota iraupen labur zein luzean gara daitezke, intentsitate handikoak zein txikikoak direlarik. Aldi berean, egoera psikologiko hau keinuen bidez adierazten da, eta hala, beste pertsonak sentitzen dena identifikatzen dute.

Horrez gain, emozioak gorputz adierazpenaren bidez ematen diren patroien eta erantzunen multzoak dira, nahiz eta, esan bezala, dimentsio kognitiboa ere baduten. Hau egoera baten aurrean sentitzen dena proiektatzean gertatzen da, hala nola, sentitu dena sinisten denean (Darder eta Bach, 2006). Azken finean, pertsonen egoera emozionalak haien mundua hautemateko modua zehazten du (Gallego, González eta Vivas 2007).

Bisquerrak (2014) aipatu bezala, emozioak kanpoko gertaera zein barneko gertaera batetik pizten dira. Gainera, gertaera hau iraganekoa, oraingoa edota etorkizunekoa izan daiteke, eta aldi berean, gertaera erreala izan daiteke edo sortutakoa (irudimenaren bidez, adibidez) Gorputzak, mekanismo bat du eta egoera baten aurrean, estimulu bat edo beste iristen da sentzumenetara, sentimendu ezberdinak sentiaraziz.

Horrela, egoera baten aurrean estimuluak sentzumenetaraino iristen dira, sentimendu ezberdinak sortuz. Hau da, informazio sensoriala garuneko zentro emozionalera iristen denean, emozio bat ekoizten da. Beraz, emozioa gertaera horren berehalako erantzuna bilakatzen da. Laburbilduz, gertaera baten aurrean planteamendu neuropsikologiko bat sortzen da, eta prozesu horrek ekintza bat egitera bultzatzen gaitu, emozio bat edo beste sentitzen eta adierazten dugularik. Horregatik, emozioa organismoaren egoera konplexua da (Gallego, González eta Vivas 2007).

0-6 urte bitartean, emozioek paper garrantzitsua jokatzen dute umeengan, haien bizitzarako ezinbestekoak bihurtuz. Horregatik, Hezkuntza emozionala Haur Hezkuntzan lantzea beharrezkoa da, bizitzan zehar aldaketak eta sentsazioak kudeatzeko. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako umeak ikasketa prozesu sakon batean daude, non haien etorkizuneko bizitzarako balioko diena ikasten hasten diren. Hain zuzen ere, tarte honetan, hezkuntza emozionala mekanismorik garrantzitsuenetako bat da eta imitazioz ematen hasten da, enpatia garatzen hasten direlarik (López, 2019).

Emozioak landu egin behar dira, gure bizitzan arriskutsua dena eta ez dena, nahi dena eta gustatzen ez dena, aspertzen duena eta interesatzen duena ezberdintzen laguntzen baitu (Ibarrola, 2013). Hezkuntza emozionalaz hitz egiten denean, buruan, gorputzean eta emozioetan pentsatu behar da eta hori kontrolatzeko jarduerak burutu, hala nola, erlaxazioa, arnasketa, gorputz adierazpena eta emozio adierazpena, hitzezko zein ez hitzezkoa (López, 2019).

Ume bat kompetentea izan dadin ezinbestekoa da bere emozioak adierazteko gaitasuna izatea, eta horregatik oso garrantzitsua da emozioak zer diren jakitea, nola eragiten duten ulertzea eta hori erregulatzen ikastea, norberaren onarpena eman dadin (Francés, 2010). Beraz, heziketa emozionalari esker, gaitasun emozionalak garatzen dira bizitzako alderdi anitzetara modu positiboan eragiten dielarik (Bisquerra, 2016).

Horregatik, emozioak klasean landu behar dira, gerora ikaslearen errendimendu akademikoaren hobekuntza nabarituriko da eta bere emozioak kontrolpean edukitzean jakingo du, norberegana eta besteengan dituzten erlazioak eraginkorragoak bihurtuz eta haurtzaroko oroitzapen ona utziz (Francés, 2010). Azken finean, emozioa, sentimendua eta ikasketa erabat lotuta daude, eta ikasketa baten esperientzian oinarritzean, sentsazio edo emozio bati lotuta egongo da beti (López, 2019). Horregatik, jarraian, garapen emozionala gorputz adierazpenaren bidez lantzeko proposamena azaltzen da.

Gorputz adierazpenean oinarrituko den esku hartze honetan, beste hainbat proposamen garatzen dira mugimenduaren, dramatizazioaren eta jolas dramatikoaren bidez, hala nola, dantza, musika, abesti dantzatua, txontxongiloak, itzala, argi kutxa, ipuin motorra eta mimika.

Dantzaren bidez, umeek sozializazioa eta motrizitatea garatzen dute, haien emozioetan eragina duelarik, hau da, umeak dantzan dauden bitartean emozioak hazten dira. Umeek eskolan dantza ematen dutenean haien funtzio motorrak ezagutzen eta ulertzen dituzte, ekintza motorrak burutuz (Muñoz, 2010). Gainera, dantzak hainbat ezaugarri batzen ditu, esaterako, musika, espazioa, gorputza, komunikazioa, sentimenduak eta mugimendua.

Honi esker, haurrek haien gaitasun kognitiboa, entzumena, gaitasun sentsioriala eta gaitasun motorra garatzen dute (Esteve, 2013).

Dantza gorputz adierazpen mota bat da, pertsona batek edo gehiagok burutzen dute lotura emozional bat sortuz eta gorputza zein mugimendua tresna gisa erabiliz. Honi esker, umeei haien gorputz eskema sakonago ezagutzen dute, norberaren mugimenduen mugak barneratzen dituzte eta keinuzko komunikazioan trebatzen dira (Morales, 2010). Cristina Isabel Gallegok (2001) aipatu bezala, **musikaren** bidez, mugimendua sentitzen ikasten da, baita pausoak koordinatzen ere. Gorputza eta gorputzeko ahalmenak hobetzera bideratzen duen artea da. Gainera, musika bat zein beste entzutean ezberdin eragiten du tonu muskularretan eta garapen fisikoetan onurak ekartzen ditu, hala nola, orekan.

Abesti dantzatuei esker, umeei gaitasun fisiko zein psikikoak garatzen dituzte. Gorputza erabiliz, mugimenduak burutzen dituzte eta musika ardatz gisa hartuz erritmo bat jarraitzen hasten dira, modu honetan, sinkronizazioa eta koordinazioa lortzen dute. Erritmoa musikako faktore garrantzitsu bat izateaz gain, zuzeneko lotura egiten du gorputz adierazpenarekin (Victoria eta Martínez, 2010).

Txontxongiloekin ordea, haurrak libre sentitzen dira, nahi dutena adierazteko gai izaten direlako haien egoera emozionala proiektatuz. Inseguritatea alde batera uzteko lagungarria da eta askotan umearen berezko izaera ikusteko aukera ematen da (Delgado, 2011).

Bermejo et al. (2014) esan arabera, **itzalekin jolastea** edota itzalen antzerkia egitea haurren adierazpenean eragin positiboa du eta garapen integrala lortzen laguntzen die. Baliabide honen bidez, haurrek norberaren eta gorputzaren ezagutza lortzen dute eta komunikazioan zein harremanetan ahalbidetzen die.

Argi kutxa baliabide bat da, haurrak horren barruan ezkututzen dira baina aldi berean errebelazio bat ematen da. Honek hainbat balore ditu, psikologikoa, terapeutikoa eta hezitzailea. Umeei haien irudimena estimulatzen dute sormenezko mundu bat sortzen dutelarik (Delgado, 2011).

Argia eta itzalarekin trasteatzea eta esperimentatzea haurrentzako hezkuntza tresna oso baliagarria bihurtzen da. Haien motibazioa sustatzeaz gain ikasgelarako proposamen berriak aurkitzeko aukera ematen dute, helburu ezberdinak lortzea ahalbideratzen duela. Hala nola, haurren sormena eta irudimena indartzea, arreta eta behaketa garatzea, gorputz adierazpena esnatzea esku zein gorputzaren mugimenduak burutzean eta inprobisazioan istorioak asmatzea besteak beste (Ramos, 2018).

Haurren adierazpen gaitasuna indartzeko, itzalarekin trasteatzea baliabide interesgarria da, batik bat psikomotritzitatea lantzen delako, hala nola, gorputz eskema, pertzepzioa zein ahozko zein ikusizko adierazpena. Itzalarekin jolasteko gorputza eta pareta, zoru edota maindire bat behar da, honekin haurrak motibatu egingo dira eta irudimenari emango diote (Martín eta López, 2007). Gainera, eskuekin zein gorputz-adarrekin trasteatu daiteke, baita gorputz osoarekin ere, talde lanean siluetak sortu, mozorrotu, oihalean objektuak itsasi, istorio ezberdinak eraiki eta siluetak manipulatu (Otegi eta Urkijo, 2014).

Itzalak haurrentzako liluragarriak eta misteriotsuak dira eta hainbat modutan landu daitezke Haur Hezkuntzan; itzal korporala edota itzal txinatarra erabiliz. Gainera, hurrek itzalekin jolasteak onurak ekartzen ditu haien sormenean, gorputz adierazpenean, kooperazioan, garapen artistikoan eta aktore zein ikusle harremanetan (Delgado, 2011).

Ipuin motorretan ordea, hurrek motibazioa sentitzen dute, ipuinaren protagonistak bihurtzen dira. Pertsonai hura mugimendu, keinu eta figuren bidez irudikatzen dute, gorputza euskarri gisa erabiliz (Iglesia, 2008).

Mimika aldiz, ezagutzan, koordinazioan eta keinuen kontrolean oinarritzen da eta lotura zuzena du gorputz adierazpenerakin. Norberaren eta besteen keinuen behaketa sustatzen du eta esan bezala gorputzaren koordinazioa eta erritmoa lantzen da (Delgado, 2011). Errepresentazio dramatikoaren artea da mimika; komunikatzeko keinuez eta gorputz-adierazpenaz baliatzen dena. Hurrek garatzen duten funtsezko jolasa da (Macias, 2011). Ortegaren (2010) arabera, ume batek imitazioa menderatzen badu, bere gorputza menderatzeko gai da.

Guzti honi esker, hurrek haien garapen integralean eragin postiboa edukitzen dute eta modu dibertigarri batean ahalbideratzen da, jolasak oinarritzat hartuz (Delgado, 2011).

3. HELBURUAK

Proiektu honen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Ikaskuntza-Zerbitzua metodologiaren bidez, eskolak zein hurrek metodo berri bat ezagutzea, eraginkorra den ala ez bermatzeko.
- Eskolan zerbitzua planteatzearen bidez, haurren autonomia, inizatiba, motibazioa eta kooperazioa bultzatzea, ikaskuntza esanguratsu eta aberasgarria lortzeko.
- Gorputz adierazpenaren eta garapen emozionalaren bidez, norbere gorputzaren ezagutza ematea eta hitzezko zein ez hitzezko komunikazio gaitasunean trebatzea,

gorputzak ematen dituen mugak ezagutzeko, sentimenduak adierazteko eta aukerak indartzeko.

- Irakasle rola hartuz, gorputz adierazpeneko eta garapen emozionaleko esku hartzea proposatu eta gidatzea, etorkizunean metodo honekin lan egiteko.
- Umeak behatuz, nire esku hartze diseinua ebaluatzea, hurrengo baterako hobeto egiteko eta etekin handiagoa lortzeko.
- I+Z zer den ezagutzea, diseinu bat sortzea eta eskola batean planteatzea, metodologia berri bat ezagutzeko.

4. METODOA

4.1. TESTUINGURUA ETA PARTAIDEAK

Zabalgana eskolan burutu den proiektua izan da, 4 urteko gelan hain zuzen ere. Eskaintako zerbitzua jangela garaiko jolas garaian izan da eta beraien gelan bertan jolastu, ikasi eta motrizitatea landu da. Hamar orduko zerbitzua izan da guztira eta saio bakoitzeko jarduera ezberdinak burutu dituzte.

Zabalgana eskola, Gasteizko auzo berri batean kokatzen den eskola publiko bat da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zerbitzuak eskaintzen ditu eta 2007.urtean Eskolaren funtzionamendua hasi zen familia gazteaz osaturik. Eskola honek, eleaniztasunaren alde egin du apustua, euskara harremantzeko hizkuntza bermatzen. Eskolak, euskal kultura eta euskalduntze prozesua bultzatzen ditu.

Honako hauek dira eskola honek sustatu nahi dituen baloreak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan ageri den bezala: parte hartzea, elkartasuna, errespetua, elkarrizketa giroa...Eskola laikoa definitzen da, hau da, erlijioarekin erlazionatutako gaiak ikuspegi historiko/kultural batetik soilik aztertzen dira (Zabalgana Ikastetxea, 2015).

Zabalganako Ikastetxeak, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan aipatzen den legez, (2015), pentsamendu zientifikoa garatzeko eta oinarrizko kompetentziak lortzeko metodologia desberdinekin egiten dute lan. Curriculum irekia, errealia eta malgua lantzen dute, kulturartekotasuna barneratuz. Gainera, Jarrera eta Prozedurako edukiak sendotzen dituzte lan proiektuen bidez. Geletan, ikasketa kooperatiboa sustatu nahi dute.

Proiektu honetan 8 partaide bildu dira; lau urteko sei ume non horietako lau mutilak ziren eta gainontzeko biak neskak. Horrez gain, Laura Haur Hezkuntzako 4.mailako ikaslea eta nire gelakidea, nirekin batera beste zerbitzu bat eskeini du eskola berean 5 urteko

haurrekin. Laurak zerbitzua eskaintzen zuen bitartean laguntzaile bat zuen eta alderantziz berdin.

4.2. ERABILITAKO TRESNAK

Prozesuan zehar informazioaren datu bilketa egiteko hiru tresna erabili dira, gerora ondorio bat edo beste ateratzeko. Alde batetik, haurrek proposatutako saioak ebaluatzeko tresna erabili da (trena), haurrak saio amaieran nola sentitu diren jakinarazteko (eranskinetan). Beste aldetik, landa oharrak, hau da saioetan bertan koaderno batean jasotzen nituen oharrak. Azkenik, narrazio etnografikoa edota egunerokoa erabili dut.

Trena, egunero saio bukaeran, erabiliko da eta “Nola sentitu naiz gaur?” galderarekin hasiko da ebaluatzeko tresna hau. Ikusten den moduan, tren honetan ume bakoitzak bere bagoia edukiko du. Trenak hainbat kurba ditu gora eta behera eta kurba aldatzen doan heinean eguraldia ere aldatzen da, emozio ezberdinak simulatuz. Beraz, ume batek bere bagoia hodei azpian jartzen badu, triste dagoela edota saioko momenturen batean triste sentitu dela adieraziko du. Tontorrean jarriz gero, eguzki azpian, pozik sentitu direla eta ondo pasa dutela esan nahiko du. Maldaren erdialdean jartzen badute momenturen batean beldurtuak sentitu direla adierazi nahiko dute. Azkenik, haien bagoia maldaren bukaeran ipintzen badute, haserre sentitu direla esan nahiko du. Tresna honekin, saioa ebaluatzeaz gain, haien emozioekin esperimentatuko da, nola sentitu diren identifikatzen hasiko direlako. Gainera, ume bakoitzak bere bagoia jartzerakoan, hitz egiteko eta ahoz nahi duena adierazteko tartetxoa izango du, sentitu duena azalaraziz.

Bestalde, Porlánek (2008) justifikatzen duen moduan, egunerokoa erabiliz ume bakoitzaren mundua eta bizitza pertsonaleko ezaugarriak ikusteko zein ezagutzeko aukera eskeintzen du. Bestalde, egunerokoa idazten den heinean ezagutza sakonagoa jasotzen da, ikuspegi zabalago bat lortuz. Haur bakoitzak duen erritmoa ikusiko da, bere garapen zein gaitasun edota ahulezi ikusteko aukera ematen du.

Narrazio etnografikoan honako informazioa aurkitzen da: orokorrean egunean burututako saioa nondik norakoa izan den, jardueraz jarduera umeen erantzuna eta garapena, zerbitzuan emandako anekdotak, haurren parte hartzea, planifikazioari buruzko oharrak, harremanak, materialaren erabilera, faktore erreztatzaile zein oztopatzaileak, nola sentitu diren haurrak eta nire esperientzia pertsonala nolakoa izan den. Guzti honek emaitzak ateratzeko balioko du, sistema kategoriala erabiliz.

Hemendik aurrera haurren datuak gordetzeko eta haien babes bermatzeko horrela izendatuak aurkituko dituzue esku hartze honetan izandako parte hartzaileak: Hernani, Tolosa, Urnieta, Oiartzun, Irun eta Andoain.

4.3. INFORMAZIOA AZTERTZEKO PROZEDURA

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, I+Z metodologiarekin egindako Gradu Amaierako Lan bat dela, tutoreak honela eskainita. Bilera bat burutu zen, metodo hau nondik norakoa zen argitu zuena, esperientzia berri eta erronka bat eskainiz.

Esperientzia hau eta prestakuntza saio ezberdinak hainbat ikasleoi eskaini zitzaizkien Unibertsitatetik. Saio zein bilera online hauetan, Gradu Amaierako Lana Ikaskuntza-Zerbitzuaren bidez buruzko informazioa, laguntza eta formakuntza ematen zen. Hona hemen burututako bilerak:

1. Taula. Ikaskuntza-Zerbitzuaren Formakuntza Saioak

Saioa	Izenburua	Data
0	Aurkezpena	Irailak 20 (2020)
1	Marko teorikoa	Irailak 29
2	Marko teorikoa zalantzak + Genero perspektiba	Urriak 13
3	Zerbitzuaren diseinua	Urriak 27
4	Idatzizko txostenaren diskurtsoa eta formatua	Azaroak 10
5	Egunerokoa + Ebaluazio-tresnak	Azaroak 24
6	Metodoa	Apirilak 13 (2021)
7	Datuen analisisa + Emaizak	Apirilak 20
8	Ondorioak	Apirilak 27
9	Defentsa	Ekainak 8

Iturria: Egileak egina

Behin guzti hori martxan jarrita, eskola bat aurkitzeko momentua iritsi zen, Ikaskuntza-Zerbitzua proposatu eta bertan planteatzeko. Laurak, nire gelakideak, kontaktua zuen Zabalganako eskolarekin eta biek bertan proiektua aurrera eramatea ideia paregabea zela pentsatu zen. Horretarako, bilera bat antolatu zen, Laura gelakidearekin, GrAL-eko tutorearekin eta Ibon Zabalgana eskolako ikasketa buruarekin. Bilera hartan, ikasketa buruak eskolaren funtzionamendua azaldu zuen, bi gela aukeran eman zituen eta zerbitzuak noiz egiteko data finkatu zen. Lehenengo bost saioak 2020ko azaroaren 2tik 6ra burutu ziren

eta beste bost saioak 2020ko azaroaren 16tik 20ra aurrera eraman ziren. Horrez gain, Laurarekin akordio batera iritsi eta berari 5 urteko gela egokitu zitzaion, 4 urteko gela niri utziz.

2.Taula. Zerbitzuaren kronograma

2020/11/02	1.Saioa	2020/11/16	6.Saioa
2020/11/03	2.Saioa	2020/11/17	7.Saioa
2020/11/04	3.Saioa	2020/11/18	8.Saioa
2020/11/05	4.Saioa	2020/11/19	9.Saioa
2020/11/06	5.Saioa	2020/11/20	10.Saioa

Iturria: egileak egina

Hurrengo pausoa diseinua pentsatzea eta planteatzea izan zen, gutxi gora behera saio bakoitzeko sei edota zazpi jarduera pentsatuz. Jarduera horietan gauza desberdinak lantzen zirela bermatuz. Prozesu honetan, Gradu Amaierako Laneko tutorearekin hainbat eta hainbat bilera burutu ziren, laguntza eske eta aholku batzuen bila.

Esku hartzea 4 urteko gelan proposatu zen eta saio guztiek egitura bera jarraitu zuten. Hala nola, saioa hasteko hurrengana joan eta korro batean biltzen ziren. Korroan ginela, hitz egiteko tarteak zen ea zer bazkaldu zuten edota zermoduz sentitzen ziren partekatzen zen une horretan. Gero, jarduerak burutzen hasten ginen eta nahiz eta modu saioa modu batean zein bestean planteatu, haurren jarreraren arabera jardueren ordena aldatu egiten zen. Behin, jarduera guztiak burututa berriro ere korroan elkartu eta ebaluazioa egiten zen, kasu honetan Trenarekin. Egunero bost minutu uzten ziren ebaluazioa egiteko eta bakoitzak sentitu duena kontatzeko aukera izan zezaten.

I+Z honetan saio guztiak proposatzeaz gain, bertan burutzen diren jardueren hainbat helburu zehatz dituzte:

- Jolas dramatikoaren eta antzezpen txikien bitartez, hitzik gabeko hizkuntzan eta komunikazioan trebatzea eta sormena zein irudimena lantzea, sentimenduak azalarazten hasteko.
- Dantzaren bidez, gorputz eskema sakonago ezagutzea eta taldelanean aritzea, mugimendu zehatzen kontrola bermatzeko, barruko sentsazioak kanporatzen ikasteko eta abesti dantzatuen kasuan hitzezko komunikazioan trebatzeko.
- Itzalarekin eta txontxongiloekin jolasean, psikomotrizitatea eta sormena lantzea zein haurren jakinmina piztea, gorputzaren mugak esperimentatzeko eta ezagutzeko.

- Argi kutzarekin, haurrek tresna berriak ezagutzea eta horretan arreta mantentzea, hitzeko zein hitzik gabeko hizkuntzan aritzeko.
- Ipuin motorraren bidez, elkarlanean aritzea, gorputzak ematen dituen mugimenduak landu eta burutzeko.
- Imitazio zein mimikaren bitartez, koordinazioa eta keinuen kontrola indartzea, gorputz atalak sakonago ezagutzeko eta mugimenduak barnerratzeko.
- Jardueren bitartez, sentimendu ezberdinak ezagutzea eta esperimentatzea zein besteei adieraztea, emozioen identifikazioa eta kontrola ematen hasteko.

4.4. ESKU HARTZEA

Izenburua	1.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	
<p>1. Lehenengo eguna denez, ezagutzeko borobilean eseriko gara eta aurkeztu egingo naiz Amets elefantea (pelutxea) esku artean dudalarik. Gero ondokoari pasako diot pelutxea eta aurkeztu egingo da, honela denek aurkezpen txikiak eginez. Hurrengo rondan, pozik jartzen gaituen zerbait esango dugu, hurrengoan triste...ezagutza jolasa eginez eta emozioak aurkeztuz.</p> <p>2. Gero, ipuin motorra egingo dugu, Amets elefantearen istorioa kontatuz eta haiek protagonista papera hartuz. Umeek gorputzaz baliatuko dira eta mugimendu desberdinak burutuko dituzte. Amets elefantea jada gelan geldituko da egunero eta zerbait kontatu nahi badiote bere txokora gerturatzeko aukera izango dute.</p> <p>3. Hurrengo jarduera, nolako musika hala ni izango da. Hemen musika estilo ezberdinak ipiniko ditut eta haurrek sentitzen dutenaren arabera dantzatuko dute.</p> <p>4. Jarraian, sentimendua asmatu egingo dugu borobilean eserita. Nik nire ondoko umeari sentimendu bat esango diot belarrira, adibidez triste. Umeak bere ondokoari begiratu eta aurpegiarekin triste dagoela azalaraziko dio, honela beste hainbat emozioekin.</p> <p>5. Saioari amaiera ematen hasteko masaje musikatua egingo dugu, umeak erlaxatzeko. Binaka jarri eta Pirritx eta Porrotxen "Kas kas oskola masajea" abestiarekin batak besteari masajea egingo dio.</p> <p>6. Bukatzeko, nola sentitu naiz gaur? egingo dugu trenaren bitartez, ume bakoitzak hitzez sentitu duena adierazteko aukerarekin.</p> <p>→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna.</p> <p>→ Jarduera bakoitza 10 minutu inguru.</p>	

Dokumentazioa

- “Nola sentitu naiz gaur?” -Trena, saioak ebaluatzeko erabiliko da
- Horrez gain, landa oharrak hartuko ditut klase osoan zehar
- Gerora, nire narrazio etnografikoan informazio osoa jasotzeko

Izenburua	2.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	
<p>1. Animalien imitazioa egingo dugu. Hasieran bakoitzak nahi duen animalia aukeratu eta aurkeztuko du. Gero, animaliak esaten joango naiz eta espazio osoan zehar animalia hori imitatuko dugu.</p> <p>2. Argazkilaria jolasa egingo dugu; ume bat argazkilaria izango da eta gainontzekoak argazkian ateratzen direnak. Ume horrek argazki bat aterako du eta giratu egingo da, tarte horretan argazkiko pertsona bat tokiz aldatuko da eta argazkilariak zein mugitu den asmatu beharko du.</p> <p>3. Zapi magikoarekin jolasean ibiliko gara, horretarako, ume guztiak alde batean eseriko dira eszenatokiari begira eta banan bana pasako dira. Etortzen den umeari, zapia aurrean jarri eta emozio, sentsazio, lanbidea, gertakari bat...azalduko diot, zapia kentzean antzeztu beharko du eta beste umeek asmatu.</p> <p>4. Ni ere horrela sentitzen naiz egingo dugu borobilean eserita. Amets elefantea erdian egongo da eta bere beldur bat azalaraziko du, borobileko ume batek beldur hori badu, erdira joan eta besarkada bat emango dio; ume guztiak erditik pasatuko dira.</p> <p>5. Dantza libre animaliekin izango da, saioan animaliak landu ditugunez, abesti hau jarraitu beharko dugu ateratzen diren animaliak imitatuz dantzatzen gauden bitartean. → “Kantu kolore - Gure animaliak”</p> <p>6. Nola sentitu naiz gaur? egingo dugu.</p> <ul style="list-style-type: none">→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna, zapi bat.→ Jarduera bakoitza 10 minutu inguru.	

Izenburua	3.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI

Ekintzak

- 1. Egin putz** jolasarekin hasiko gara, binaka jarriko dira eta bikotekide batek putz egingo du bikotearen gorputz-atalen batean. Orduan, bigarrenak gorputz-atal hori mugituko du, aireak mugitzen duela irudikatuz.
- 2. Han** jolasa egingo dugu, umeak jada bikoteka daudela musika jarriko dut eta dantzan hasiko dira begiak itxita. Musika gelditzerakoan begiak zabaldu eta haien bikotekidea bilatu beharko dute tokitik mugitu gabe. Aurkitzerakoan “HAN” oihukatuko dute bikotea seinalatuz. Jolasa aurrera joan ahala bariantek sartuko ditugu, hala nola, “han” oihukatu eta hurbildu, eskua eman, besarkatu...
- 3.** Jarraian, bikoteka jarraitzen dutela **esku agintaria** egingo dugu, bikotekide batek esku agintaria eukiko du, eta bere eskuarekin bikotea maneatuko du, eskua alde batetik bestera mugituz, gora eta behera.
- 4.** Segidan, abesti honi jarraituz, **gorputzaren soinua**, dantzatu beharko dugu bertan esaten diren gorputz atalak mugituz. (“Gorputz soinua”)
- 5.** Ostean, borobilean zutik jarriko gara **olatua** egiteko, besoak astintzen hasiko da bat eta hurrengokoek olatua jarraitu beharko dute, baina norbaiti ondokoak txalo egiten badio, beste aldera bidali beharko du olatua.
- 6.** Bukatzen joateko, **zonbia eta bere laguntzailera**, jolastuko gara. Binaka jarriko dira, bat zonbia izango da eta bestea bere laguntzailea. Zonbiak begiak itxiko ditu eta bere laguntzaileak gidatu egin beharko du gela osoan zehar ezerrekin txokatu gabe noski. Gero rolak aldatuko ditugu.
- 7.** Amaitzeko, **nola sentitu naiz gaur?** egingo dugu.
 - Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna.
 - Jarduera bakoitza 8 minutu inguru.

Izenburua	4.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	
1. Gaurko saioa oinez hasiko gara, banaka, umeak gela osoan zehar sakabanatuko dira eta normal ibiliko dira zorutik. Nik, hainbat zoru-egoera desberdinak (zoru irristakorra, lokatzez betea, txiklez betea, txingarrez, izoztua, bustita...) esango ditut, banan-banan eta umeek zoru horren gainean nola ari diren mugitzen aztertuko dut.	
2. Berehala, museo jolasa egingo dugu, ume bat kalera joango da eta besteek denon	

artean museo bat sortu beharko dugu. Museoan ikusiko diren estatuak umeek irudikatuko dituzte, eta horretarako museo mota desberdinak esango dizkiet (beldurrezkoa, lanbideena, tristuratena, haserrearena, dinosaurioena...). Kalera joan den umea museora sartu eta ze museo den asmatu beharko du.

3. Jarraian, zein dago desberin? jarduera egingo dugu, umeak gelan zehar sakabanatuak egongo dira eta emozio berdinak esango dizkiet denei belarrira ume bati izan ezik. Denek esan diedana adierazi beharko dute aurpegiko keinuen eta gorputzaren bidez. Asmatu egin beharko dute gelakideko zeinek duen beraiena ez den emozioa.

4. Hurrengo, dantza txipi-txipi izango da, borobilean jarriko gara eta ume bat borobil barruan saltoka eta txaloka joango da abestiaren ("Maritxipi") errtimoa kontuan hartuz. Norbaiten parean jarri eta dantza txipi txipi egingo dio, beraz orain bi umeak joango dira borobil barruan. Honela ume guztiak dantzan egon arte.

5. Amaitzeko, nik etxetxo bat daukat, abesti dantzatua kantatuko dugu borobilean keinuen laguntzaz. Gainera, hasieran pozik abestuko dugu, hurrengo rondan triste, hurrengoan haserre, hurrengoan lotsatuta...Horrela emozio desberdinak erabiliz eta horren arabera tonoa eta mugimenduak erregulatuz.

6. Azkenik, nola sentitu naiz gaur?

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna.

→ Jarduera bakoitza 10 minutu inguru.

Izenburua	5.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	
<p>1. Gaurkoan, semaforoa jolasarekin hasiko gara borobilean. Koloreak esango ditut eta haurrek horri dagokion mugimendua burutuko dute. Berdea = salto bat aurrera. Laranja = bira bat eman. Gorria = salto bat atzera. Semaforo = denak tokiz aldatu.</p> <p>2. Beranduago, oiartzuna, korrika ibiliko dira haurrak gela osoan zehar, eta nik norbait seinalatuko dut. Seinalatua izan den umeak bere izena oihukatu beharko du eta beste taldekide guztiak korrika joan beharko dira beregana besarkada bat ematera.</p> <p>3. Jarraian, trena egingo dugu ilara bat osatuz eta musikaren erritmora joanez. Musika gelditzerakoan azkena dagoena besteen hanka azpitik pasako da lehena izatera. Horretarako, musika gelditzerakoan treneko guztiek hankak zabalduko dituzte azkeneko umea pasa ahal izateko. Aurrean dagoen umeak erabakiko du nora joan.</p>	

4. Ondoren, **itzalarekin** jolasean ibiliko gara binaka, bata bestearen atzean espazio osoa okupatuz. Aurrean doan umeak mugimendu ezberdinak egingo ditu eta atzekoak imitatu egin beharko ditu bere itzala dela simulatuz. Gero rola aldatuko ditugu.

5. Bukatzeko, **trikitixa**. Abesti hau burutzeko, ni “eszenatokian” jarriko naiz eta bai abestiak eta baita nik ere egiten ditudan mugimenduak imitatu beharko dituzte. Abesti hau erabiliz: “Trikitixa KOREO Pirritx, Porrotx eta Marimotos”

6. Azkenik, **nola sentitu naiz gaur?**

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna.

→ Jarduera bakoitza 8 minutu inguru.

Izenburua	6.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalzana HLHI
Ekintzak	
<p>1. Gaurkoan, besarkadak jolasarekin hasiko gara eguna goxo hasteko. Musika lasaia jarriko dut eta denak dantzan egongo gara modu librean. Musika gelditzerakoan kide bat besarkatuko dugu, inor bakarrik uzten ez dugularik. Aurrerago, musika mota aldatu eta berdina egingo dugu.</p> <p>2. Jarraian, gehituz ikasi jarduera burutuko dugu borobilean. Ni hasiko naiz eta zera esango dut “Ni Naroa naiz, errugbilaria” esaten dudana bitartean errugbilaria naizela adieraziko dut gorputzarekin eta denek imitatuko naute. Hurrengoak zera esango du: “Bera Naroa da, errugbilaria eta ni Laura naiz saskibaloiko jokalaria”. Horrela, gehitzen joan gara. 3. Egunerokoarekin mimikan, ume bakoitzak bere lekua hartuko du gelan eta egunerokoan gertatzen den ekintzak azalduko ditut. Ume guztiek begiak itxiko dituzte eta ni esaten dudana adieraziko dute. Hau da, nik zera esaten badut “Oso pozik esnatu zarete” denek hori adierazi beharko dute. Esmatzen direla, gosaldutatu eta horrela ekintzak proposatuz.</p> <p>4. Segidan, txorimalo jolasean ibiliko gara. Horretarako, taldekide bat paretaren batean jarriko da, paretari begira eta beste guztiak beste aldean. Paretaren pare dagoen umeak zera esango du “bat, bi, hiru txorimalo bat dugu!” eta burua giratuko du. Besteak, ume hori giratzerakoan, estatuak bezala gelditu beharko dira eta haien helburua paretaraino iristea izango da paratzen den umeak mugitzen ikusi gabe noski.</p> <p>5. Amaitzeko, zer oparitu didazu? borobilean zutik jarriko gara eta gutako bat erdian jarriko da. Begiak itxi eta bueltak emango ditu besoa señalatzeko duelarik. Gelditzerakoan norbait señalatzeko egongo da eta belarrira objektu, lanbide, animalia...bat esan beharko dio</p>	

eta ume horrek gorputzarekin adierazi beharko du, borobileko gainontzekoek asmatzen dugula.

6. Beti bezala, saioari amaiera emateko **nola sentitu naiz gaur?** egingo dugu.

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna.

→ Jarduera bakoitza 10 minutu inguru.


Izenburua	7.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	
<p>1. Gaur, amonatxo-amonatxorekin hasiko gara. Ume bat denon parean jarriko da urrutira eta besteen helburua beregana iristea izango da. Banan-banan galdetuko diogu ume horri “amonatxo-amonatxo, zenbat gustatzen zaizkizu makarroiak?” ume horri asko gustatzen bazaizkio, erraldoi baten pausoa emango du galdetu dion umeak, gustatzen bazaio dantzari baten pausoa emango du, ez bazaio asko gustatzen inurri pausoa emango du eta ez bazaio ezer gustatzen karramarro pausoa emango du atzeraka. Jolas honen bitartez, umea sakonago ezagutzeko aukera izango dugu, erraldoi, dantzari, inurri eta karramarroaren ibilera ezberdinak imitatzen ditugarik.</p> <p>2. Hurrengo jarduera, dantza ezberdinak izango dira eta espazio osoa erabiliko dugu. Bakoitza nahi duen aldera mugitu eta desplazatuko da dantza mota ezberdinak burutuz (ballet, break dance eta halakoak) Dantza motaren arabera modu batera edo bestera mugituko gara.</p> <p>3. Jarraian, material bera, objektu desberdina jarduera burutuko dugu borobilean eserita eta erdian egunkaria dagoela. Ume bakoitzak egunkari puska bat hartu beharko du eta hura moldatu, beste objektu bat bihurtuz. Ume bakoitzak bihurtu duen objetua azalduko du antzezpen txiki bat burutuz.</p> <p>4. Bukatzeko, egunkariarekin istorio dramatiko bat sortuko dute aurreko jardueran sortutako objektuarekin. Binaka jarriko dira eta istorio dramatiko bat asmatu eta antzeztu beharko dute.</p> <p>5. Saioa amaitzeko, nola sentitu naiz gaur? egingo dugu.</p> <p>→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, egunkaria.</p> <p>→ Jarduera bakoitza 13 minutu inguru.</p>	

Izenburua	8.Saioa
------------------	---------

Ekintzak

1. Gaurkoan, maindire handi batekin **etxea sortuko** dugu gelako iskin batean, kobazulo baten antzera. Gero, denak barruan gaudela linternekin jolasean ibiliko gara. Trasteatzen, istorioak asmatzen...

1. Irudia: *Umeek sortutako figurak*



Iturria: egileak eginak.

2. Jarraian, **maskara pasa** jolasa egingo dugu, eta arduera hau egiteko imaginazioaerabiliko dugu. Banan-banan borobilean gaudelarik, poltsikotik maskara bat aterako dugu, maskara hori gure eskua izango da. Nik aurpegian jarri eta maskara kentzean beste aurpegi bat edudkiko dut, eta ondokoari nire maskara pasako diot, berak aurpegian jarriko du eta kentzerakoan beste aurpegi keinu bat egin beharko du.

3. Hurrengo jarduera, **zenbakiak adieraztea** izango da, hasieran banaka, lurtean etzanda jarriko dira eta zenbakiak esango ditut eta haiek haien gorputzarekin adierazi beharko dute. Gero binaka jarriko dira eta bien artean adostuta adierazi beharko dute eta azkenik talde osoak zenbaki bera burutuko dute.

4. Amaitzeko, **zirku** bat montatuko dugu. Istorio bat inprobisatuko dut denak zirkoko langileak bagina bezala antzesten dugularik. Batzuk malabaristak, beste batzuk akrobatikak...Denak zirkoan egongo bagina bezala egongo gara eta gerora ume bati narratzaile papera pasako diot. Berak istorioa jarraitu edota berri bat hasiko da, zirkoaren inguruan. Ume guztiak, narratzaile izatetik pasako dira.

5. Saioa bukatzeko, **nola sentitu naiz gaur?**

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, maindirea, linterna, musika entzuteko tresna.

→ Jarduera bakoitza 13 minutu inguru.

Ekintzak

1. Gaurko egunean, Elmerren ipuinarekin burututako **argi kutxa** erakutsiko diet. Ume guztiak eseri eta arretaz entzungo dute istorioa. Laura eta nik kontatuko diegu ipuina. Ipuina kontatu eta gero, umeei txontxongiloak utzi eta haiek **esperimentatuz** istorioa sortzeko aukera izango dute, irudimenaz baliatuz nahi dutena kontatzeko aukerarekin.

2. Segidan, **zeramika** jarduera burutuko dugu, hau egiteko bat eskultorea izango da eta beste kide guztiak eskulturak. Zeramikazkoak izango dira, beraz eskultoreak mugitu beharko ditu nahi duena adieraziz, hau da, haien gorputzari forma berak emango die, bere familia, animaliak...nahi duena sortuz. Beste ume guztiak estatuak bezala geratuko dira eta ume bakoitzak bere eskultura azaldu beharko du.

3. Bukatzeko, **nola sentitu naiz gaur?**

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, argi kutxa, Elmer ipuina.

→ Argi kutxa burutzeko 40 minutu beharko dira, aldiz beste bi jarduerak burutzeko 10 minutu inguru.

Izenburua	10.Saioa
Eskola / Erakundea	CEIP Zabalgana HLHI
Ekintzak	

1. Azken egun honetan, **zubiri-zubirirekin** hasiko gara. Bi gelakide, zubi bat osatzen jarriko dira gela erdian eta abesti hau beharko dugu: “Zubiri-zubiri (Pirritx eta Porrotx)” Zubia osatzen duten hurrek janari bat pentsatu beharko dute, besteak bitartean zubitik pasatzen joango dira korro bat osatzen. Abestia bukatzen denean ume bat zubi artean geratuko da eta zubia osatzen dutenen aukerak entzun beharko ditu, gehien gustatzen zaionaren atzean jarriko da eta berriz ere abesten eta dantzan jarriko dira korroan.

2. Gero, **epo itai tai ye** abesti dantzatua egingo dugu, horretarako: “Epo itai tai ye Katxiporreta” beharko dugu.

3. Segidan, **pirritx eta porrotxen** familien karta-jokoarekin ibiliko gara. Ume bakoitzari karta bat emango diot eta gorputzarekin adierazi beharko du familiako zein tokatu zaion. Hau da, amona bada amona bezala ibili beharko da, umea bada umetxo bat bezala jarriko da. Bakoitzak bere bikotea aurkitu beharko du. Jarduera hori burutu eta gero, familia bat aukeratu eta gertaera bat antzeztu beharko dugu. Bakoitza pertsonai bat izango da eta haiek istorio txiki bat asmatu beharko dute. Gero antzeztuko dutena.

4. Bukatzeko, **puxikarekin dantzan** egongo dira. Binaka jarriko dira umeak eta musika egongo da bitartean. Bikote bakoitzak puxika bat edukiko du eta nahi duten gorputz atalarekin (eskua izan ezik) dantzatu beharko dute puxika erori ez dadin.

5. Bukatzeko, azken **nola sentitu naiz gaur?** egingo dugu.

→ Saio osoan zehar beharko dugun materiala: amets pelutxea, musika entzuteko tresna, puxikak.

→ Jarduera bakoitzak 13 minutu inguru.

5. EMAITZEN ANALISIA

Ikaskuntza-Zerbitzu honen **aspektu metodologiko**etara jotzen bada, esan beharra dago eskolara joan aurretik eta umeak ezagutu baino lehen planteatutakoa zerbitzua dela. Beraz, prozesuaren zehar aldaketa txiki batzuk burutu dira. Egunero hainbat jarduera, aurretik prestatuak, eramaten ziren, baina haurren jarreraren arabera gutxiago ala gehiago egiten ziren edota jarduera batzuetan besteetan baino denbora gehiago igarotzen zen.

Espazioari dagokionez, hasieratik zerbitzua gela batean burutuko zela jakin zen. Beraz, jarduerak horren arabera pentsatuak izan ziren. Eskolak utzitako espazioa haurren gela zen, beraz haurrek berokia edota jertsea non utzi bazekiten, gela barruan korrikarik egiten ez zela bazekiten, nahiz eta batzuetan gogorarazi behar izan zitzairen. Gela handi samarra zen eta jarduerak aurrera eramateko espazioa egokia zen. “Klasera sartu eta haien patiotik etorri dira, agurtu egin diet eta borobilean eseri gara. Zerbitzua burutzeko espazioa egokia dela ohartu naiz. Gainera, Ametsentzako ere sofa moduko bat dago gelan. Denok bere txokoa hori izatea adostu dugu” (2020/11/02_NarrazioEtnografikoa).

Gaur egungo egoera dela eta, Covid-19 hain zuzen ere, Ikaskuntza-Zerbitzu honetan haurrei jardueretan eskaini zaien **materiala** urria izan da, jolasetan material gutxi egotea komeni zelako. Erabilitako material nabariena Amets pelutxea izan da, saioz saio eraman da eta haurrei asko gustatu zaie. “Materialari dagokionez, Amets elefantea oso aberasgarria izan da, konfiantza lortu dutelako eta sekretuak kontatzera hurbildu direlako” (2020/11/02_NE). Amets pelutxea proiektu osoan zehar presente egon da, nahiz eta bere txokoa izan haurrek eskubide osoa zuten saioan zehar beregana jotzeko eta sekretu bat kontatzeko, nola sentitzen diren adierazteko, besarkada bat emateko, berekin deskantsatzeko... Honek hainbat esaldi goxo eta anekdota bitxiak eman ditu.

Hernani: “Naroa, sekretu bat kontatu nahi diot Ametsi”, “Masajea eman dugunez, Amets lokartu egin da”, “Belarriak ondo jarri behar dizkiogu Ametseri, gu entzuteko”. Urnieta: “Amets

bere tokian utziko dut, goxo-goxo” (2020/11/01_Landa Oharra). Hernani: “Pozik edo triste gaudenean Ametsengana goaz, sekretuak kontatzeko” (2020/11/04_LO).

Erabat murgildu dute Amets pelutxea Ikaskuntza-Zerbitzu honetan, goizero besarkada bat ematen zioten eta bere txokoan uzten zuten. Jolasak egiterakoan ere haretaz gogoratzen ziren, eta saio erdian korrika joan musu bat eman eta besteongana hurbiltzen ziren. “Gaur jolas bat egiten ari ginela Ametsen txokora hurbildu dira bi ume, posturaz mugitu dute, musu bat eman diote eta jolastera etorri dira. Gero, borobilean eseri gara, beste ume batek Amets hartu eta borobilean jarri du, harek ere jolasaren azalpena entzun dezan” (2020/11/05_NE).

Koreografia bat prestatu dugu “Gorputzaren soinua” abestiarekin! Hau galdetu diet: “Zeinek dauka dantzatzeko gogo?” denek oihukatu dute: “NIK” eta ume batek esan du “shhhhh, Amets esnatu egingo duzuela” (2020/11/04_NE).

Ikaskuntza-Zerbitzu honen bidez planteatutako **proposamen didaktikoari** dagokionez, gorputz adierazpenean oinarritutako jarduerak burutu dira. Hala nola, jardueretan hainbat eduki landu dira, jolas dramatikoak, dramatizazioa, dantza, abesti dantzatuak, txontxongiloak, itzalak, argi kutxa, ipuin motorra, imitazioa zein mimika besteak beste. “Musika ezberdinak jarri ditut, eta orokorrean musikarekin bat zetorren sentimendua dantzatu dute, esaterako, Mikel Laboa entzun dugunean denak lasai-lasai egon dira, aldiz ACDC jarri dudanean gitarra jotzen balira bezala egon dira” (2020/11/02_NE). Erlaxatzeko denbora ere egon da. “Masajea egiterakoan, batzuk goxoago jokatu dute besteak baino, hala ere orokorrean oso lasai gelditu dira denak masajea eta gero. Ume batek esan du, amets lo gelditu dela zegoen lasaitasunarekin” (2020/11/02_NE).

Saioz saio, **ikasleek** jarduera ezberdinen aurrean **emandako erantzunak** anitzak izan dira. Jolas dramatikoan murgildutako hainbat jarduera proposatu zitzaizkien eta nahiz eta hasieran lotsatu samar ibili, denbora gehien ibili diren jarduerak izan dira. Gogotsu eta parte hartze aktiboarekin ikusten zitzaien. Gainera, haien irudimen zabalaz ohartzeko balio izan zuen. Honen erakusle argia egunkariaren jolasa izan zen, egunkaria hartu eta objektu desberdinak irudikatu behar zituzten (txanoa, hegazkina, gerrikoa, baloia...), gerora antzezpen txikiak burutzeko.

Behin eta berriro desegiten zuten egunkaria objektu ezberdinak sortuz. Bikoteka atera dira antzezpenak egiteko: Hernani eta Irun, batek ezpata zuen eta besteak eskudua eta borrokatu egin dute. Urnieta eta Andoain, bat esterillan yoga egiten ari zen eta gero pertsona gaizto bat joka. Tolosa eta Oiartzun, batek hortzak zituela eta beste batek hegazkina. Hemen bukatu behar zen jolasa, baina berriro atera nahi zuten haien material berria erakusteko eta geratzen zen denbora osoa horretan aritu gara (2020/11/17_NE).

Antzekoa zen beste jarduera batekin ere berdina pasa zen. Saio osoa jolas honetara ibili nahi zuten, paper desberdinak antzeztuz. Kasu honetan, Pirritx eta Porrotxen kartekin

burututako jardueran izan zen. Bakoitzak karta bat hartu eta pertsonai horren antzezpena egin behar zuen.

Pirritx eta Porrotxen kartekin..izugarria izan da. Bakoitzak karta bat hartu eta tokatu zaien pertsonaia antzeztu egin dute gogotsu. Hirunaka jarri eta istorio bat kontatu behar izan dute pertsonai desberdinekin (bi ama eta amona bat, argazkilari eta gazte bat) Sortu dituzten istorioak ikaragarriak izan dira eta behin eta berriro beste karta bat emateko eskatu didate (2020/11/20_NE).

Baita zapiaren jolasarekin ere, behin eta berriro emozio, ekintza zein lanbideak eskatzen zituzten, antzezten ibiltzeko. Gainera, oso motibatuak zeuden haien gelakideak egiten zutenaren zain, asmatzeko asmoz.

Zapiaren jokoak, gaurko joko gustukoena izan da. Denbora pila pasa dugu jarduera hau egiten, hasieran banaka atera dira, nik belarrira ekintza, emozio, lanbide zein animalia bat esan diet eta denek primeran antzeztu dute. Oso azkarrak ibili dira ere asmatzen. Ariketa honetan ere oso parte hartze aktiboa izan dute (2020/11/03_NE).

Itzalek ere arrakasta izan dute Ikaskuntza-Zerbitzu honetan. Jarduera azaldu baino lehen itzala zer zen galdetu zitzaie, gero, haien artean eta eguzkiarekin jolasean itzalarekin esperimendatzen ibili ziren. Gorputz osoarekin itzala balira bezala ibili ziren, imitazioa ere landuz. “Galdetu diet badakizue zer den itzala? eta ume batek nire itzala seinatu du honako hau esanez; Tolosa: “Hori zure itzala da eta zuk egiten duzuna kopia du” (2020/11/06_LO). Binaka jarri dira eta bat bestearen itzala izan da. Oso aberasgarria izan da, bikote bat tokian gelditu da gorputz atalak mugituz eta itzala begiratu, beste bikote bat aldiz espazio osoan zehar ibili da, dantzan, krixkitin egiten... (2020/11/06. NE).

Beste egun batean, itzalean oinarritzen zen beste jarduera bat burutu eta egundoko emaitza jaso zen haurren partetik. Gogotsu ibili ziren itzalarekin esperimendatzen, gainera hitzezko zein ez hitzezko komunikazioa lantzen ibili ziren. Jarduera, etxe bat sortu eta denak barruan egonda linternekin eta itzalarekin jolastea izan zen. Batzuk haien gorputz irudi guztia erabili zuten besteoi istorioa kontatzeko, beste batzuk aldiz, eskuak eta besoak erabili zituzten. Kasuren batean, baita Amets pelutxea ere. Jarduera honetan haurrek erabateko inizatiba eta autonomia eduki zuten istorioak kontatzeko orduan. “Ume batek zera esan du “Y si todos hacemos algo con las manos? quedará guay” (2020/11/18_LO).

Izugarritzko jarduera izan da, banan-banan atera dira eta istorio desberdinak asmatu dituzte, dinosauroen inguruan, Amets elefantearekin, tximeletak, lagunak, borroka, erori...Izugarritzko sormena daukate eta asko gustatzen zaie erakustea. Denak adi egon dira haien gelakideek egiten zutenaren zain. Denbora pila bat egon gara jarduera honekin, oso gustura zeudelako eta emaitza zoragarriak ateratzen ari zirelako (2020/11/18_NE).

I+Z honetan ere argi kutxa funtsezkoa izan da, Haur Hezkuntzan oso baliagarria baita. Elmerren ipuina kontatu zitzaien argi kutxa baten bidez. Ipuina kontatu bitartean erne-erne egon ziren, itzalaren jolas horrekin txundituta gelditu ziren. Amaitu eta haien momentua iritsi zen, banaka atera eta istorioa ezberdinak entzuteko aukera eman zen, une zoragarri bat sortuz. Oso aberasgarria izan zen ikustea nola umeek istorioa sortzen eta inprobisatzen zuten. Nahi zituzten pertsonaiak hartu eta bertan esperimentatzen ibili ziren. Erabateko parte hartze aktiboa eman zen.

Gaur Argi Kutxa eraman dut... ume bakoitzak bere istorio txikia kontatu du. Ahozko hizkuntza ere garatu egin dugu. Batzuk lotsatuagoak ibili dira, beste batzuk aldiz irekiagoak. Ume batek ez du parte hartu, nahi ez zuelako. Izugarritzko istorioak kontatu dituzte. Oso hunkigarria izan da haien eboluzioa ikustea eta beren sormenetik ateratzen diren istorio horiek entzutea (2020/11/19_NE).

Ikusi den bezalaxe, Ikaskuntza-Zerbitzu honetan gorputz adierazpena lantzearekin batera emozioak ere azaldu dira, oso nabariak izan dira. Pixkanaka-pixkanaka norberaren eta besteen emozioak identifikatzen eta ulertzen hasi dira, baita gorputzarekin adierazten ere.

Borobilean eseri eta ume batek esan dit Amets ekartzeko eta gure artean esertzeko, jolastu nahi zuela. Belarrira esan ditudan sentimenduak oso ondo barneratu eta azaleratu dituzte aurpegiko keinuekin. Denek sentimendu guztiak asmatu ditugu, eta amets parte hartzailea ere izan da (2020/11/02_NE).

Borobilean eseri eta beldurraren inguruan hitz egiten egon gara, denek parte hartu dute, ume lotsatia ere askatu egin da bere beldurra kontatzen. Beldur desberdinak atera dira; hala nola, iluntasunari, altuerari, drakulei, labezomorroiari, munstro gaiztoei...Beldurrei buruz hitz egitea ez da erraza, giro polita sortu da eta konfiantza eduki dute hitz egiteko orduan (2020/11/03_NE).

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuta, orokorrean, egunero oso **ebaluazio** positiboa jaso da eta hori saio bukaeran jakin da. Trenaren ebaluazioarekin bakoitza nola sentitu den jakin da, ia pozik, triste, haserre edota beldurtuak sentitu diren kontatu dute. Askok nahiz eta ondo pasatu duten, momenturen batean zerbait gertatu bazaie hori azalarazi nahi izan dute Trenean. Beraz, saio bukaeran momentu lasai bat bizitzeko aukera eman da, ume bakoitza nola sentitu den azalarazteko unea eta saioa haientzako esanguratsua izan den jakiteko momentua. "Azkenik, nola sentitu garen gaur egin dugu, denek esan didate oso ondo pasa dutela baina ume batek bere bagoia hodei tristean ipini nahi izan du. Denek errespetatu dugu eta agurtu egin gara" (2020/11/02_NE). Galdetu egin diet eta denek oso ondo pasatu dutela eta "super pozik sentitu direla esan didate. Gero ume bakoitzak bere bagoia sentitu den arabera jarri du eta txalo egin dugu klasea amaitutzat ematen (2020/11/04_NE).

Zerbitzuaren ebaluazioa begiraleengandik ere jaso da. Jarduerak burutzen zirela beti begirale bat edo beste zegoen gelan eta dena behatzeko aukera zuen. Jasotako mezu positiboek esker, I+Z honen ebaluazioa haien aldetik ere eman da.

Autobusean nindoala, jangelako bi begiralekin elkartu naiz, bi horiek nire gelan egon dira nik proiektua aurrera eramaten nuela eta esan didate asko gustatzen zaiela eta kanpotik oso proiektu polita eta dibertigarria ikusten dela. Gainera, kontatu dit bazkaltzen zeudela umeek kontatu dietela zer egin duten nirekin (2020/11/04_NE).

Ez hori bakarrik, haurrek Ikaskuntza-Zerbitzuari emandako **balorazioak** asko lagundu du, hala nola motibatuagoa sentitzeko, gogotsu egoteko eta proiektua aurrera eramaten jarraitzeko. Esaterako, zerbitzua eskaintzen hasi ginen lehenengo astetik bigarren astera, astebete zerbitzu gabe pasa zuten, horrela erabakita baitzegoen, eta tarte horretan umeek faltan somatzeak lana ondo egitearen seinale zela sentitu zen.

Jolas bat egin eta gero zera esan dit Andoainek “El otro día como no estabais fuimos a buscaros al pasillo” (2020/11/16_LO).

Prozesu osoan zehar hainbat **faktore erraztatzaile** eman dira. Hala nola, eskolako Ikaskuntza-Zerbitzu honi eta proposatutako proiektuari emandako harrera. Lehenengo egunetik oso hurbilak izan dira. Ez hori bakarrik, egunerokotasunean emandako umeen puntualitatea ere faktore erraztatzaile bat izan da, horri esker ordubeteko saioa guztiz aprobetxatzeko aukera eman delako.

Gaur lehenengo eguna izan da, eta nahiko urduri sentitu naiz. Eskolara iritsi eta irakasle batek eskola erakutsi dit, baita egokitutako gela ere, 4 urteko gela alegia. Lehenengo eguna izanik irakasleak gelaraino hurbildu izana asko lasaitu nau, konfiantza handia transmititu dit. Irakasleak berak haurrak deitu eta ekarri egin ditu (2020/11/02_NE).

Bestalde, I+Z prozesua **faktore oztopatzaile** batzuekin topatu da. Esaterako, gaur egungo egoerak ez du asko lagundu, Covid 19, distantzia mantendu behar izatea, musukoa eramatea, haurrek irakaslearen aurpegia osotasunean ez ezagutzea...Gainera, nahiz eta ume txikien kasuan musukoa eramatea derrigorrezkoa ez izan, batzuek eraman dituzte, beraz, aurpegiaren espresioa galdu egin da. “Faktore oztopatzaile bezala musukoa izan da, nire aurpegi erdia ikusteko aukera dutelako bakarrik eta aurpegi erdiaren espresio erdia galtzen delako. Gainera, gaur ume batzuek musukoa jarrita eraman dute beraz, jarduera batzuetan haien espresioa ere galdu egin da” (2020/11/02_NE).

I+Z honetan emandako **harremani** dagokienez, egunetik egunera erlazio ezberdinak ikusteko aukera eman da. Hasiera batean denak elkarrekin egoten ziren baina denbora aurrera joan ahala, haurren arteko harreman ezberdinak eta lidergo motak ikusi dira. “Tolosa eta Urnieta ia beti batera daude, Irun eta Oiartzun askotan elkarren ondoan jartzen dira, Andoain askotan ere Urnietarekin, eta Hernani bera bakarrik” (2020/11/06_NE).

Lider natural bat dagoela ikusi da, askotan berak egiten duena besteek errepikatzen dutelako. Gainera, lider natural honi lotsa duen ume batek jarraitu egiten dio, beraz askotan biak elkarrekin daude. “Tolosak Urnietak egiten duen guztia egiten du, eta bere atzetik ibiltzen da beti. Urnietak ere gehienetan Tolosa bilatzen du baina beste batzuetan ez” (2020/11/16_NE).

Gehienetan bakarrik egoten den umea liderra izaten saiatzen da, oso azkarra eta arduratsua da eta dena hasieratik ulertzen du, beraz, besteen gaineratik hitz egitea gustatzen zaio, atentzioa berak edukitzea eta denek hura entzutea. Azalarazten dituen esaldi guztiak oso interesgarriak izaten dira, adibidez umeren bat Argi Kutxatik oso gertu jarri zenean edota beste ume bati trenaz azaldu zioneko esaldiak.

Hernani oso azkarra da, eta borobilean gaudenean jolas bat azaltzen nagoela eta norbait altsatzen bada askotan esaten die hori ez dela egiten eta entzuteko. Oso barneratuak ditu arauak eta beti erne dago (2020/11/16_NE).

Hernani: “No te pongas tan cerca que te van a poner gafas” eta “shhh, antzerkia dagoela” (2020/11/19_LO). Hernani: “Jarri behar duzu trenaz, hemen triste egon bazara, hemen super pozik, hemen beldurtua eta hemen haserre” (2020/11/04_LO).

Prozesuan zehar ere ikusi da nola ume batek uneoro atentzioa behar zuen gainontzeko kideengandik. Hau da, protagonista izan behar zen, bestela ez zuen kasu askorik egiten. Kostatzen zitzaion besteen txanda errespetatzea.

Urnietak izaera desberdina dauka, atentzioa nahi du eta esaten dituen gauzei zentzua hartzea zaila da. Gaur, Andoainek eta Oiartzunek egiten zuen guztia egiten zuen. Jolasten bazegoen bera ere jolasten, Ametsekin bazeuden bere ere Ametsekin eta kasurik egiten ez bazitzaion “negarrez” egongo balitz bezala jarri da (2020/11/16_NE).

Hala ere, orokorrean oso giro egokia eman da egunero eta haien artean oso justuak izan dira. Gainera, Ikaskuntza-Zerbitzua aurrera joan ahala haurren arteko elkarlana eta kooperazioa bultzatu dela egiaztatzen da.

Zubiri-zubiri jolasarekin hasi gara, oso ondo pasatu dugu eta umeak beraien artean oso justuak dira. Bakoitza alde batean jarri beharrean, ikusi egiten dute ea zenbat jende dagoen alde batean zein bestean, horren arabera atzean jarri dira, inor bakarrik ez geratzeko (2020/11/20_NE).

Jolasten ari ginela ume bat lurrera erori da eta mina hartu du, segituan denak joan dira beregana eta besarkada bat eman diote, elkarlanean eta kooperazioan jolasten jarraitzeko (2020/11/20_NE).

Erlazioak nahiko markatuak egon arren, denen artean oso maitakorrak eta kariñosoak izan dira prozesu osoan zehar. Badakite afektibitate hori adierazten, nahiz eta

batzuek besteek baino gehiagotan adierazi. “Oso maitakorrak dira, haien artean askotan besarkatu egoten dira, zerbait azaltzen nagoela edota jarduera erdian” (2020/11/05_NE).

Nahiz eta Ikaskuntza-Zerbitzuan alderdi gehienak positiboak izan, hainbat **gabezi** zein **zalantza** bizi dira; hala nola jolas bat asko gustatu ez zaienean edota arreta galdu dutenean.

Andoainek esan du haserre zegoela, deskansatu nahi zuelako denbora guztian eta ez jolastu. Orokorrean gaur oso aztoratuak egon dira eta beste egunetan baina gehiago kostatu zait klasea aurrera eramatea (2020/11/16_NE).

Olatuaren jolasa azaldu dut, baina ez da oso ondo atera....4-5 ume Ametsengana joan dira...beraz, pixka bat galduta sentitu naiz zer egin ez nekiela baina, bueno hurrengo jolasera bideratu naiz, galdera honekin: “Zeinek daki zonbiarena egiten?” denak zonbiak bezala etorri dira eta jolasa azaldu diet (2020/11/04_NE).

Ikaskuntza-Zerbitzu honek niregan ere hainbat sentimendu piztu ditu, egoera zehatz baten aurrean sentitutako beldurra, une askotan bizitutako poza, lehenengo egunetako urduritasunak besteak beste.

Gaur, ume lotsatiena (Irun) saltoka jarri da eskua altxatuta “Ni, Ni, NI!!” esaten parte hartzeko. Horrek oso kontent jartzen nau, irekitzen ari delako. Hunkitu egiten nau honek, pixkana-pixkana gauzak lortzen ari naizela ikusten baitut (2020/11/05_NE).

I+Z osoan zehar une konkretu batean **inzidente kritikoren** bat gertatu da baina azkar pentsatu eta erabaki bat hartu izan da, konponbidea aurkituz. Askotan, jarduerak orden batean egitea pentsatuak zeuden baina haurren jarreraren arabera orden bat edo beste jarraitu da. Hala nola aztoratuak bazeuden jarduera lasaiago bat burutu da, aldiz txintxo eta gogotsu egon ezkerro zerbait mugituagoa burutzen zen.

Gaur mugituagoak egon dira beste egunetan baino beraz, hurrengo jarduera egin baino lehen denak borobilean eseri, eskuak yogan bezala jarri eta arnas hartu dugu. Aurreko jardueratik ere nekatuak zeuden (2020/11/04_NE).

Bukatzeko, asko dira I+Z proiektu osoan zehar bizitutako **anekdotak**. Momentu dibertigarri bat sortu den unea, esaldi klabe bat eta halakoak.

Ebaluazio orria erakutsi diet..kartulinaran badaude lau marrazki, bat haserre dagoena, beste bat pozik, beste bat triste eta beste bat beldurtua. Ume batek elur maluta beldurtua ikusi eta zera esan du “hau da coronavirusa” Parrez hasi gara eta momentu dibertigarri bat eskaini digu (2020/11/02_NE).

6. ONDORIOAK

Hasteko, esan beharra dago, Gradu Amaierako Lana Ikaskuntza-Zerbitzuaren bidez egitea esperientzia eraginkorra izan dela, arlo pertsonal zein profesionalean. Hezkuntza eredu desberdin bat ezagutzeko eta sakonki analizatzeko aukera izatea oso aberasgarria izan da.

Emaitzetan ikusi bezala, I+Z honi esker hainbat emaitza zein ondorio eskuratzen dira Haur Hezkuntzan, hala nola, haurrak oso gustura egon dira prozesu osoan zehar eta gogotsu parte hartu dute proposatu zaizkien jardueretan, arretaz entzun dituzte eta parte hartzeko prest egon dira beti. Mendiak (2012) aipatzen duen moduan, Ikaskuntza-Zerbitzuan parte hartzaile arduratsuak sustatu eta indartzen dira. Ez hori bakarrik, haurren motibazio maila altua izan dela ere ikusi da lehenengo egunetik, gainera, saioz saio aztertu da nola motibazio maila areagotuz joan den eta bakoitzaren izaera loratzen eta erakusten hasi diren. I+Z ikaskuntza esanguratsu eta aberasgarri bat lortzen laguntzen du, ikasleen motibazio maila altua delako (Aramburuzabala eta Opazo, 2015).

Bestalde, eskolako begiraleei eta haurrei metodo berri hau ezagutzeko aukera eman zaie. Gainera, eskaintako zerbitzuarekin pedagogiak eta elkartasunak bat egin dute. I+Z proiektuari esker, arazo zein ahulezi baten hobekuntza eman da, kasu honetan, gorputz adierazpenaren lanketa eta emozioen identifikazioa. Batllek (2011) esan bezala, parte hartzaileak inguruneko beharretan inplikatzeko dira, arazo baten hobekuntzaren bila.

I+Z honi esker, saioz saio, haurrek autonomia eta inizatiba lortuz joan dira. Hasiera batean lotsatuak ibili direla ikusi da, baina proiektua aurrera joan ahala askatzen joan dira eta banaka istorioak kontatzera edota jardueretan parte hartzera animatu dira. Beraz, I+Z hainbat oinarrizko konpetentzia sustatzen ditu, hala nola, haurren ekimena eta autonomia (Escosa, 2014). Aitzitik, harremani dagokionez ikusi da I+Z honen bidez kooperazio bat eman dela eta haien artean errespetuz jokatu dutela. Esaterako, nahiz eta umeen erlazio batzuk itxiagoak izan diren, orokorrean guztion artean elkarlana eman da. Txandak errespetatzea, gogoz jolastea, borobilean banan-bana hitz egitea, sortutako giroa...guzti horrengatik talde lana eta kooperazioa indartu egin da.

I+Z honekin landu nahi izan diren edukiei dagokienez, gorputz adierazpena eta emozioen lanketa alegia, haurrek norbere gorputzaren ezagutza indartu dute, hitzezko zein ez hitzezko komunikazio gaitasunean trebatu dira, gorputzak ematen dituen mugak ezagutu dituzte eta sentimenduak adierazteko tresnak eskuratu dituzte. Cáceresek (2010) aipatzen duen moduan, gorputz adierazpena lantzean, gorputzaz, mugimenduz eta sentimenduz oihartzeko zara.

Ildo horretatik, planteatutako jarduerak gorputz adierazpenean oinarritu dira eta jolas dramatikoarekin eta dramatizazioaren zirikusia izan duten jarduerak besteen gainetik

nabarmendu egin dira, asko gustatu zaizkie. Interpretazioak eta antzezpenak burutuz, irudimena, hizkuntza eta komunikazioa zeharo landu dute (Morón, 2011).

Horrez gain, saioetan nabarmendutako beste proposamen bat itzalak izan dira. Erabat txundituta egon dira haurrak itzalarekin jolasteko eta trasteatzeko jarduerak proposatu zaizkienean. Hala nola, gela barruan maindirekin etxe bat sortu zenean eta linterna batekin bakoitzak bere esku zein gorputzarekin istorio txiki bat kontatu zutenean edota Argi kutxa eraman zenean; istoria kontatu eta denak erne-erne egon ziren. Gero, beraiek esperimendatzen egon ziren eta bakoitzak istorio ezberdin bat kontatu zuten. Haurrak itzalarekin jolasten egon diren bitartean, haien sormena, gorputz adierazpena, kooperazioa eta garapen artistikoa indartu dute (Delgado, 2011).

Honekin batera, emozioak zein sentimendu ezberdinak agertu dira Ikaskuntza-Zerbitzu honetan. Jarduerak burutu ahala eta prozesu osoan zehar sentimendu ezberdinek paper garrantzitsu bat bete dute. Pixkanaka-pixkanaka ume bakoitzak bere erritmora, barruan sentitu dutena kanporatu du, baita gelakideei komunikatu ere. Laguntzaile bat Amets pelutxea izan da, hasieran lotsa gehiago sentitu dutenean Ametsengana joan dira nola sentitzen ziren kontatzeko. Aldiz, egunak aurrera joan ahala denon aurrean kontatzera edota adieraztera animatu dira. Beraz, gorputz adierazpenaren bidez emozioak agertuz joan dira eta horrek estimulazio afektiboa bermatzea eta sentimenduak adierazten hastea ekarri du (Abarca, Marzo eta Sala-Roca, 2002).

Une askotan emozioak ez hitzeko hizkuntzan kanporatu dituzte, hala nola dantza baten bitartez edota aurpegiko keinuen bidez. Nahiz eta hitzeko hizkuntza ere asko landu den, gehien bat borobilean eseri diren bakoitzean. Emozio ezberdinak atera dira gorputz adierazpenerako jarduerak burutzearen bidez; poza, tristura, haserrea, beldurra, lotsa eta urduritasuna besteak beste. Era desberdinetan komunikatzeko tresnak ikasi dituzte, istorio baten bitartez, hitzez, keinuz, gorputzak ematen dituen mugimenduekin baliatuz eta halakoak (Morales, 2010).

Bukatzeko, aurretik aipatutako guztiarekin esan behar da, Ikasketa-Zerbitzu honek helburu nagusiak arrakastaz bete dituela. Hala nola, emaitzak eta teoria alderatuz ikusi da metodologia honen bidez, eskolak zein haurrek metodo berri bat ezagutu dutela eta ikaskuntza eraginkorra izan dela. Aurretik aipatu bezala, saioz saio haurrek ahulezi hori indartu egin dute. Ez hori bakarrik, eskolan zerbitzu hau planteatzearen bidez, haurrek pixkanaka autonomia, parte hartze aktiboa, motibazioa eta inizatiba lortu dute, kooperazioa ere indartu delarik. Gainera, gorputz adierazpenaren eta garapen emozionalaren bidez, norbere gorputzaren ezagutza eman da eta hitzeko zein ez hitzeko komunikazio gaitasunean trebatzea lortu dute. Horri esker, gorputzak ematen dituen mugak ezagutu dituzte eta pixkanaka sentimenduak adierazi dituzte.

Azkenik, helburu pertsonalei dagokienez, irakasle rola hartzea ez da erraza izan baina lortu egin dut, jarduerak pentsatu eta gidatu ditut. Zerbitzu oso bat burutu eta nireganako konfiantza haztea lortu dut arlo pertsonal zein profesionalean. Ikaskuntza-Zerbitzua zer den ezagutu eta diseinu bat aurrera eramatea lortu dut. Egindako lanak eta jasotako emaitzak asko lagundu didate aurrera jarraitzeko eta etorkizun batean lagunduko didala ziur nago, esperientzia handia eskuratu dut.

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Ikaskuntza-Zerbitzu honetan eman daitezkeen hobekuntzak aipatzen dira. Lehenik eta behin, gaur egungo egoera azpimarratu behar da, Covid 19. Egoera beste bat izango balitz jarduerak kontaktu fisiko gehiago edukiko lukete, hainbat jarduera moldatu behar izan baitziren. Gainera, musukoak ez ziren beharko eta haurren aurpegiak osotasunean ikusiko ziren.

Bestalde, gaur egungo egoera dela eta edota beste arrazoi batengatik, I+Z honetan ez da familiarekin harremana sortu. Beraz, familiarekiko harremana sortu izan balitz etekinak ere areagotuko lirateke. Pena izan da, horregatik I+Z hau hobeagoa izango zen familia ere proiektuan barneratuko balitz; jardueretan, edota haurren interpretazio zein antzezpenak haiengana iritsiko balira.

Ikusi duzuen bezala, I+Z honen bidez hainbat helburu bete dira. Baina, zerbitzuaren iraupena luzeagoa izango balitz, edukiak gehiago landuko lirateke, helburu gehiago eta sakonagoak lortuz. Ordubeteko hamar saioekin gauza asko lortu dira, beraz saio gehiago burutuz gero, emaitza, etekin zein ondorio gehiago eskuratuko ziren.

Ez hori bakarrik, normalean I+Z bat proposatzen denean egoera, haurrak zein komunitatea edota haien beharrak lehenagotik ezagutzen dira. Kasu honetan, proposamena edota zerbitzua lehenagotik planteatutakoa izan da. Horregatik, haurrak lehenago ezagutzeko aukera izanda jarduerak haurren ezaugarri zein beharretara moldatu daitezke, alderantziz zailago egiten den prozesua baita.

Bukatzeko, Ikaskuntza-Zerbitzuak eskaintzen dituen balore, aukera zein irakaskuntza esanguratsuaz ohartzeko aukera izanik, Haur Hezkuntzako Gradua burutzen duten guztion eskuartean egon beharko zen metodo honekin lan egiteko aukera, oso interesgarria, esanguratsua zein aberasgarria baita.

8. ERREFERENTZIAK

- Abarca, M., Marzo, L., & Sala-Roca, J. (2002). La educación emocional en la práctica educativa de primaria. *Bordón*, 54 (4), 505-518.
- Alvarez-Uria, A. & Tresserras, A. (2014). Hezkuntza artistikoa jolas gisa. In Vizcarra, M.T. (Koord.) *Kubik: antzezlan bat baino gehiago... Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat (79-96.or)* Bilbo: EHU.
- Aramburuzabala, P. & Opazo, H. (2015). La institucionalización del aprendizaje-servicio en la universidad, *El Aprendizaje-Servicio en las universidades. De la iniciativa individual al apoyo institucional (11-19.or)*. Madrid: Uned.
- Argüelles, G. & Zelaieta, E. (2015). Ahozko adierazpena eta dramatizazioa Haur Hezkuntzako irakasleen baliabide. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Batlle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de aprendizaje-servicio?. *Crítica*, 972, 49-54.
- Benitez, I.M. (2012). Importancia de la expresión corporal en la educación. *Buenas tareas*. 2020ko azaroaren 14ean berreskuratua: <https://www.buenastareas.com/ensayos/Expresion-Corporal/4168149.html>
- Bermejo, A., López, V.M. & Pallarés, C. (2014). Teatro de sombras, diseño y puesta en práctica de una unidad didáctica en Educación Infantil. *La Peonza*. Revista de Educación Física para la paz, 9, 63-71.
- Bisquerra, R. (2014). Educación emocional e interioridad. En L. López, *Maestros del corazón. Hacia una pedagogía de la interioridad (223-250.or)*. Madrid: Wolters Kluwer.
- Bingle, R. & Hatcher, J. (2000). Institutionalization of Service-Learning in Higher Education. *The Journal of Higher Education*, 71, 273-290.
- Cáceres, M.A. (2010). La expresión corporal, el gesto y el movimiento en la edad infantil. *Temas para la Educación*, 9, 1-7. <https://www.feandalucia.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd7343.pdf>
- Calle de los Santos, P. (2010). Aprendizaje y Servicio en Educación Infantil. El estudio de dos casos inspiradores. (Gradu Amaierako Lana). Universidad de Cádiz.

- Cañal, F. & Cañal, M.C. (2001). Música, danza y expresión corporal en Educación Infantil y Primaria. *Tomo 1*. Junta de Andalucía. Consejería de Educación y Ciencia. https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/1155_d_69805bc7f_musicadanza.pdf
- Darder, P. & Bach, E. (2006). Aportaciones para repensar la teoría y la práctica educativas desde las emociones. *Teoría de la Educación*, 18, (55-84.or).
- Delgado, M.E. (2011). La dramatización, recurso didáctico en educación infantil. *Pedagogía magna*, 11, 382-392.
- Edo, M. & Blanch, S. (2016). *El patio de los deseos*. [Un proyecto de aprendizaje-servicio (ApS), Universitat Autònoma de Barcelona (UAB)]. https://gent.uab.cat/mequeedo/sites/gent.uab.cat.mequeedo/files/El-patio-de-los-deseos%20Edo_Blanch.pdf
- Eines, J. & Mantovani, A. (1980). *Teoría del juego dramático*. Breviarios de educación.
- Escosa, S. (2013-2014). Un proyecto de ApS en la etapa de Educación Infantil. (Grado Amaierako Lana). Universidad de Zaragoza.
- Esteve García, A.I. (2013). *La expresión corporal y la danza en Educación Infantil*. Universidad de Valladolid - Repositorio Documental. <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/3463>
- Folgueiras, P. & Martínez-Vivot, M. (2015). Evaluación participativa, aprendizaje-servicio y universidad. *Profesorado*. Revista de currículum y formación del profesorado, 19, 1, 128-143. <https://www.redalyc.org/pdf/567/56738729008.pdf>
- Francés, R. (2010). Emoción y conflicto. En A. Caruana Vañó (koord.). *Aplicaciones Educativas de la Psicología Positiva*. Alicante: Hispania.
- Gallego, C.I. (2001). La expresión corporal del niño a través de la música. *Revista de música culta*, 13. <http://filomusica.com/filo13/nino.html>
- Gallego, D., Gonzalez, B. eta Vivas, M. (2007). *Educar las emociones*. C.A.
- García, I; Pérez, R. & Calvo, A. (2013). Expresión corporal. Una práctica de intervención que permite encontrar un lenguaje propio mediante el estudio y la profundización del

- empleo del cuerpo. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 23, 19-22.
- Goleman, D. (1995). ¿Qué es la emoción? *Inteligencia emocional* (242-243.or). Kairós.
- Herranz, A. & López, V.M. (2015). La expresión corporal en Educación Infantil. *La Peonza. Revista de educación física para la paz*, 10, 23-44.
- Ibarrola, B. (2013). *Aprendizaje emocionante. Neurociencia para el aula*. SM.
- Iglesia, J. (2008). Los cuentos motores como herramienta pedagógica para la Educación Infantil y Primaria. *ICONO 14. Revista de comunicación y tecnologías emergentes*, 6, 1, 1-15. <https://www.redalyc.org/pdf/5525/552556592006.pdf>
- López, E. (2019). Educación emocional en la infancia. *Educación las emociones en la infancia (de 0 a 6 años)* (17-57.or). Wolters Kluwer.
- Macías, J.G. (2011) Expresión y comunicación corporal: gesto y mimo. *Innovación y experiencias educativas. Revista Digital*, 43, 1-9.
- Martín, M.I. & López, V.M. (2007). Teatro de sombras en educación infantil: un proyecto para el festival de navidad. *Retos. Nuevas tendencias en Educación física, deporte y recreación*, 12, 45-50.
- Martinez, M. (2008). *Aprendizaje Servicio y responsabilidad social de las universidades*. Barcelona: Octaedro - ICE.
- Mendia, R. (2012). El Aprendizaje-Servicio como una estrategia inclusiva para superar las barreras al aprendizaje y a la participación. *Revista Educación inclusiva*, 5, 1, 71-82.
- Montavez, M. (2008). Expresión corporal, un camino hacia la excelencia. *El Movimiento Expresivo* (73-103.or). Salamanca: Amarú.
- Morales, A. (2010). La expresión corporal en Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas. Revista digital*, 31, 1-8.
- Morón, M.C. (2011). El juego dramático en Educación Infantil. *Temas para la Educación. Revista digital para profesionales de la enseñanza*, 12, 1-6. <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7915.pdf>
- Muñoz, M.J (2010). Un viaje al pasado: Juegos y danzas populares en Educación Infantil. *nnovación y experiencias educativas. Revista digital*, 34, 1-8.

- Nuñez, L. eta Navarro, M.R. (2007). *Dramatización y Educación: aspectos teóricos*. Teoría de la educación, 19. 225-252. Universidad de Salamanca.
- Otegi, A. eta Urkijo, I. (2014). Dramatizazioa. Vizcarra M.T. (Koord) *Gorputz adierazpena Lehen Hezkuntzan* (127-167.or). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ortega, P. (2010). La expresión corporal en Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*. Revista digital, 35, 1-8.
- Porlán, R. (2008). *El diario de clase y el análisis de la práctica*. Universidad de Sevilla.
- Puig, J.M., Gijón, M., Martín, X. & Rubio, L. (2011). Aprendizaje-servicio y Educación para la Ciudadanía. Revista de educación número extraordinario 2011, 45-67.
- Ramos, L. (2018). Las luces y las sombras como herramienta educativa en nuestras aulas. *Revista ventana abierta*. Revista digital de afiliados a ANPE. <https://www.printfriendly.com/p/g/DDB3Ls>
- Rodríguez-Gallego, M. (2014). El Aprendizaje-Servicio como estrategia metodológica en la Universidad. *Revista Complutense de Educación*, 25, 1, 95- 113. https://doi.org/10.5209/rev_RCED.2014.v25.n1.41157
- Romero, R. (1999). *La expresión y comunicación corporal desde el ámbito de la educación física: elementos, características y enfoque globalizador de la misma*. En Linares, D., Zurita, F., eta Iniesta, J. A. (Eds.), *Expresión y comunicación corporal en Educación Física*. Granada: Asociación para el desarrollo de la Comunidad Educativa en España y Grupo Editorial Universitario.
- Santamaria, S. (2004). *Expresión corporal*. monografias.com. <https://www.monografias.com/trabajos16/expresion-corporal/expresion-corporal.shtml#caracter>
- Stokoe, P. & Schächter, A. (1994). *La expresión corporal*. Barcelona: Paidós.
- Tejerina, I. (1999). El juego dramático en la Educación Primaria. *Textos de didáctica en la lengua y la literatura*, 19, 33-44.
- Victoria, S. & Martínez, J. (2010). Ritmo, canciones motrices y expresión corporal en educación infantil. *EFDeportes.com*, Revista digital, 144. <https://www.efdeportes.com/efd144/ritmo-canciones-motrices-en-educacion-infantil.htm>

- Vizcarra, M.T. (Koord.) (2014). 7.Gaia: Komunikazioa eta gorputz adierazpena Haur Hezkuntzan. *Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Vizcarra, M.T., & Murua, N. (2014). Gorputz Adierazpena, zer da? Kontzeptua. In M.T. Vizcarra (koord.) *Gorputz Adierazpena Lehen Hezkuntzan* (21-38 or.). Bilbo: EHU
- Zabalgana Ikastetxea (2015). Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua. Vitoria-Gasteiz.
- Zaccagnini. J.L. (2004). *Inteligencia emocional. La relación entre pensamientos y sentimientos en la vida cotidiana*. Biblioteca Nueva.

9. ERANSKINAK

9.1. NARRAZIO ETNOGRAFIKOA, LANDA OHARRAK eta EBALUAZIOA TAULAK

1. SAIOA → Azaroak 2

Gaur lehenengo eguna izan da, eta nahiko urduri sentitu naiz. Eskolara iritsi eta irakasle batek eskola erakutsi dit, baita egokitutako gela ere, 4 urteko gela alegia. Lehenengo eguna izan dela eta, irakasleak gelaraino hurbildu izanak asko lasaitu nau, konfiantza handia transmititu dit. Irakasleak berak haurrak deitu eta ekarri egin ditu. Hasieran, umeak lotsatuak zeuden, ez baininduten ezagutzen.

Klasera sartu eta haien patiotik etorri dira, agurtu egin diet eta borobilean eseri gara. Zerbitzua burutzeko espazioa egokia dagoela ohartu naiz. Gainera, Ametsentzako ere sofa moduko bat dago gelan. Denek bere txokoa hori izatea adostu dugu. Denon presentazioak egiteko Amets elefantea atera dut. Nire izena esan eta pelutxea pasatu dut haien izenen berri izateko. Gero beste ronda bat egin dugu, baina oraingo honetan ozenago esan dute izena, latsa alde batera utziz. Hurrengo rondan pozik egiten gaituzten gauzak esan ditugu, gehien bat lagunekin egotea atera da, baita bazkaldu eta geroko sentsazioa ere. Hurrengo rondan triste jartzen gaituen zerbait esan dugu, gehienek mina ematen digutenean triste jartzen garela esan dugu. Amets elefanteak ere parte hartu du.

Ipuin motorra kontatu diet, eta oso sartuak egon dira istorian zehar. Gainera sentimenduak ateratzen zirela haien kontakizunak ere partekatu dituzte, adibidez beldurra atera denean ume batek kontatu egin du beldurra pasatzen duela dinosauroekin amets egiten duenean. Eta beste batek azalarazi du gauetan beldurtzen denean amari oihukatzen diola bere ohera joan dadin, beste batek alegia kontatu du gauetan beldurtzen denean berriro lokartzen dela. Denek oso ondo adierazi dute haien gorputzarekin Ametsek sentitzen zuena.

Ipuina bukatuta, Amets bere txokora eraman dut. Baina joan baino lehen ume batek sekretu bat kontatu dio belarrira.

Musika ezberdinak jarri ditut, eta orokorrean musikarekin bat zetorren sentimendua dantzatu dute, esaterako, Mikel Laboa entzun dugunean denak lasai lasai egon dira, aldiz ACDC jarri dudanean gitarra jotzen balira bezala egon dira. Estatuarena denek oso ondo errespetatu dute, eta primeran antzeztu nik esandako sentimenduak. Ume bakoitzari dantzatzeko esan diedanean, erraz hartu dute protagonistaren papera, dantza ezberdinak eskainiz. Batzuk

irekiagoak ibili dira, beste bat aldiz lotsatuagoa bera protagonista zelarik. Eta ume bat abesti guztietan energiaz beteta egon da.

Borobilean eseri eta ume batek esan dit Amets ekartzeko eta gure artean esertzeko, jolastu nahi zuela. Belarrira esan ditudan sentimenduak oso ondo barneratu eta azalaratu dituzte aurpegiko keinuekin. Denek sentimendu guztiak asmatu ditugu, eta amets parte hartzailea ere izan da.

Masajea egiterakoan, batzuk goxoago jokatu dute besteak baino, hala ere orokorrean oso lasai gelditu dira denak masajea eta gero. Ume batek esan du, amets lo gelditu dela zegoen lasaitasunarekin.

Azkenik, nola sentitu garen gaur egin dugu, denek esan didate oso ondo pasa dutela baina ume batek bere bagoia hodei tristean ipini nahi izan du. Denek errespetatu dugu eta agurtu egin gara, bihar arte!

Materialari dagokionez, Amets elefantea oso aberasgarria izan da, konfiantza lortu dutelako eta sekretuak kontatzera hurbildu direlako. Musika ere, tresna oso aproposa izan da, haiek askatzeko.

Ikasleek oso ondo erantzun dute esandako guztiari, jarduera guztietan gogotsu parte hartu dute.

Faktore oztopatzaile bezala musukoa izan da, nire aurpegi erdia ikusteko aukera dutelako bakarrik eta aurpegi erdiaren espresio erdia galtzen delako.

Jarduerak burutzen nituela, ume batzuk askatu eta barreneko sentimendu batzuk azaleratu dituzte. Nire koadernoan landa ohar gisa jaso ditut honako esaldiak:

- “Naroa, sekretu bat kontatu nahi diot Ametsi” (Hernani)
- “Masajea eman dugunez, Amets lokartu egin da” (Hernani)
- “Ni ez naiz nekatzen, ahal naiz egon dantzatzen egun osoa” (Tolosa)
- “Belarriak ondo jarri behar dizkiogu Ametseri, gu entzuteko” (Hernani)
- “Nik beldurra dudanean gauetan horrela egiten dut: AAAAA!! nire ohera etortzeko” (Tolosa eta Andoain)
- “Ba nik beldurra dudanean berehala lokartzen naiz, ama deitu gabe” (Hernani)
- “Dinosauroak datozenean ametsean beldurtu egiten naiz” (Irun)
- “Amets bere tokian utziko dut, goxo-goxo” (Urnieta)

Zerbitzuko lehenengo eguna izateko, gelan giro egoki eta lasai bat sortu dugu. Hurrek jarduera berriekiko jarrera errezeptiboa izan dute eta era aktiboan parte hartu dute. Horrek asko lasaitu eta motibatu nau hurrengo egunetarako.

Harrera eta Sarrera oso egokiak izan dira, gelak erakutsi dizkigute eta umeak ekarri. Eroso sentiaraztea lortu dute faktore erreztatzaile bat bihurtuz.

Gaur lehenengo eguna izan da, eta saio bukaeran nire ebaluazio orria erakutsi diet, hau da egunero, hurrak nola egon diren ebaluatzeko erabiliko dudan tresna. Tren bat da eta bertan bakoitzak bere bagoia edukiko duela azaldu diet. Kartulinaran badaude lau marrazki, bat haserre dagoena, beste bat pozik, beste bat triste eta beste bat beldurtua. Ume batek elur maluta beldurtua ikusi eta zera esan du “hau da coronavirusa” Parrez hasi gara eta momentu dibertigarri bat eskeini digu.



2.SAIOA → Azaroak 3

Gaur bigarren eguna izan da eta lasaiago joan naiz gelara. Nire gelara iritsi eta umeak patioan zeuden, bi ume zain zeuden gelara sartzeko eta nirekin jolasteko. Umeak deitu eta denak korrika etorri dira. Gaurko saioan 6 ume bakarrik egon dira.

Gelan sartu eta zer esan diet: “Zein falta da?, Atzo zein ezagutu genuen?” eta umeek Amets! erantzun dute. Hartu eta bere txokoan utzi dugu. Zer bazkaldu duten kontatu didate eta jarduerari hasiera eman diegu.

Lehenengo jarduera, animalien imitazioena izan da. Hasieran ume bakoitzak nahi izan duen animalia aukeratu du, batek zezena, beste batek, tigrea, lehoia, tximinoa, gorila eta txoria. Musika jarri dugu eta bakoitzak bere animalia imitatu du, gorputz eta soinuen bidez. Gero animaliak esaten joan naiz eta denek egin dugu. Igela, kangurua, flamenkoa...Bat batean zera esan dit ume batek: “Naroa, ametsek beldurra dauka, zer egin dezakegu?” (Hernani). Amets elefantea denez, denak elefante bihurtu gara eta denek esan dute “Jada pozik dago Amets!”.

Animaliak imitatu eta gero, argazkilariaren jokoa egin dugu. Denek parte hartu nahi zuten aldiro. Hori oso motibagarria da niretzat, jarduera gustatu zaiela nabaritu da. Pixka bat zaila egin zaie lehenengoan asmatzea beraz behar duten denbora eskaini diet asmatzeko.

Zapiaren jokoa, gaurko joko gustukoena izan da. Denbora pila pasa dugu jarduera hau egiten, hasieran banaka atera dira, nik belarrira ekintza, emozio, lanbide zein animalia bat esan diet eta denek primeran antzeztu dute. Oso azkarrak ibili dira ere asmatzen. Ariketa honetan ere oso parte hartze aktiboa izan dute, ume bat izan ezik. Ez du antzeztu nahi izan, lotsatua sentitu dut, baina asmatzeko orduan aktibo ibili da.

Gero, borobilean eseri eta beldurraren inguruan hitz egiten egon gara, denek parte hartu dute, ume lotsatia ere askatu egin da bere beldurra kontatzen. Denei esan diet: “Nola ahal diogu galdetu Ametsi?”, eta denek esan dute “Ze beldur dituzu Amets?”. Beldur desberdinak atera dira; hala nola, iluntasunari, altueri, drakulei, labezomorroari, munstro gaztoei...Ariketa ez da atera pentsatu bezala, helburua besarkatzea zen, baina umeak beldurra kontatu eta beste umeek ere besoa altxatu dute beldur hori ere sentitzen badute. Denek parte hartu dute, Ametsek ere bai. Ume batek zera esan dit “Nik ez du beldurrik Naroa” (Tolosa)

Gaur animaliak landu ditugunez, saio bukaeran abesti bat jarri dugu animaliak azaltzen zirela. Denek dantzatu eta imitatu ditugu.

Bukaera, ebaluazioa atera eta denek nola sentitu diren esan didate. 5 ume oso pozik egon dira, bat aldiz beldurtua, krokodrilok beldurra ematen diotelako.

Anekdota bezala, animaliena egiten ari ginela ume batek beste bati nahigabe zapaldu egin dio, eta negarrez hasi da. Beregana jo dut eta altuan esan dut "Aizue, ume hau triste dago, zer egin dezakegu?" denak hurbildu dira musu eta besarkada bat ematera, ume batek Amets hartu du eta behatzean musu bat eman dio. Umea pozik jarri da eta jardurekin jarraitu dugu.

Faktore erreza: umeak oso azkarrak dira eta parte hartzeko gogotsu daude. Gainera, oso txintxoak dira.

Badaude bi ume, ia beti besarkatuak daudena. Baina gehien bat denak oso ondo eramaten dira, harreman antzekoak mantenduz.

Bikoteak egiterako orduan, berdin zaie zeinekin jarri, ez dute gogokoa den inor.



3.SAIOA → Azaroak 4

Gaur, hirugarren eguna izan da, gelara iritsi eta umeak patioan zeuden. Gelako batek ikusi nau eta korrika etorri da niregana, eta segidan beste guztiak ere. Gaur beste egunetan baina aztoratuagoak etorri dira, gaur 6 ume etorri dira eta haietako bat berria zen nire proposamenean.

Borobilean eseri gara eta umeek kontatu diote ume berriari zein zen Amets elefantea eta zertarako erabiltzen dugun; “Pozik edo triste gaudenean Ametsengana goaz” (Hernani). “Sekretuak kontatzeko”. Ume berria erraz integratu da ametsekin eta denek batera bere txokora eraman dute.

Lehenengo jarduera azaldu dute eta binaka jarri dira, errieta eta arazorik gabe. Putz egiten egon dira gorputz osoan zehar, eta gero beste bikoteak egin du. Gehien gustatu zaiena ipurdian putz egitea izan da eta haien saltoka ibiltzea jarduera honetan. Batzuk lasaiago ibili dira beste batzuek baino, hala ere denek primeran burutu dute lehenengo jarduera.

Bigarren jarduera egiteko bikoteak aldatu dituzte eta erabat harrapatu dute jolasa. Egia da, umeren bat oso pendiente zegoela bere bikotea bistaz ez galtzeko, besteak aldiz libreki ibili dira eta musika gelditzerakoan erraz topatu dute bikotea. Hasieran “Han” oihukatu dugu, gero korrika joan behar ginen bikotearengana eta txokala eman, ondoren korrika topatu eta kaixo zer moduz esan eskuak ematen genituela eta azkenik ipurdiarekin agurtu gara.

Esku agintaria egin dugu jarraian, oso dibertigarria izan da. Hasieran nik nuen esku agintaria eta denak nire eskura begira egon dira eskuak zer egiten zuenaren zain. Denak ibili dira eskuaren aginduetara, alde batera eta bestera ibiliz, gora eta behera, bueltaka, saltoka... Denbora pasa eta gelakide bati pasa diot esku agintaria izatera, eta bere eskuak egiten zuena egin dute gainontzeko ume guztiek. Oso ondo bete du bakoitzak bere papera eta norberaren rola bete dute. Gero beste ume bat izan da esku agintaria, horrela ume guztiak esku agintaria izatetik pasa arte.

Gaur mugituagoak egon dira beste egunetan baino beraz, hurrengo jarduera egin baina lehen denak borobilean eseri, eskuak yogan bezala jarri eta arnas hartu dugu. Aurreko jardueratik ere nekatuak zeuden.

Koreografia bat prestatu dugu “Gorputzaren soinua” abestiarekin! Hau galdetu diet: “Zeinek dauka dantzatzeko gogoia?” denek oihukatu dute: “NIKKK” eta ume batek esan du “shhhhh, Amets esnatu egingo duzuela”. Ni aurrean jarri naiz eta ume guztiak nire parean, abestia hasi eta denek kopiatu egin didate, gero dantza pausoak erreparatu ditugu eta berriro ere abestia jarri eta dantzatu egin dugu. Ume bateri esan diot ea prest zegoen aurrean jartzeko eta baietz! Hurrengo aldian abestia jarri dudala berak eraman du koreografia, nire laguntzarekin noski.

Gaur ume bat, nekatua egon da, eta Ametsekin elkartu da pare bat aldiz berekin etzanda egoteko, deskantsatzen zuelarik.

Koreografia eta gero, olatuaren jolasa azaldu dut, baina ez da oso ondo atera. Olatua pasatzen hasi gara eta denbora guztian txalo egiten zutenez direktzioz aldatzen zen eta umeak galdu egin dira. 4-5 ume Ametsengana joan dira...beraz, pixkat galdua sentitu naiz zer egin ez nekiela baina, bueno hurrengo jolasera bideratu naiz, galdera honekin: “Zeinek daki zonbiarena egiten?” denak zonbiak bezala etorri dira eta jolasa azaldu diet.

Binaka jarri eta zonbiak begiak itxi eta bere laguntzaileak gidatu behar zuen. Ume bat oso konfidatua zihoan beste batzuk aldiz poliki edota begiak irekitzen. Jolasean gustura zeudenez, bariante batzuk jarri eta jarraitu dugu jolasean. Zonbiarena egiten hasi naiz eta nire laguntzailearekin beste umeak harrapatu behar nituen. Bat harrapatzean bera izango zen zonbia...Gainera, gero, ni jarri naiz zonbiari begiak tapatzen, bat harrapatu eta asmatu behar zuen zein ume zen. Denek lehenengoan asmatzen zuten eta izugarria izan da. Pixka bat ukitu eta asmatzen zuten, denbora dezente ibili gara honetara jolasten.

Beste jarduera falta zitzaigun baina denbora justua gelditzen zen ebaluazioa egiteko.

Gaurko egunean, ume berri bat etorri da asteazkenetan jangelan bazkaltzen gelditzen delako. Beraz, ebaluazio kartulina atera eta umeek azaldu diote ume berriari zer zen; Hernani: “Jarri behar duzu trenea, hemen triste egon bazara, hemen super pozik, hemen beldurtua eta hemen haserre”. Galdetu egin diet eta denek oso ondo pasatu dutela eta super pozik sentitu direla esan didate. Bakoitzari bere bagoia eman diot baina gaurkoan bakoitzak bere bagoia bi pegatinekin apaindu dute. Gero ume bakoitzak bere bagoia sentitu den arabera jarri du eta txalo egin dugu klasea amaitutzat ematen.

Umeen tutorearekin hitz egin dut bukaeran, oso ume lasai eta azkarrak direla.

Autobusean nindoala, jangelako bi begiraleekin elkartu naiz, bi horiek nire gelan egon dira nik proiektua aurrera eramaten nuela eta esan didate asko gustatzen zaiela eta kanpotik oso proiektu polita eta dibertigarria ikusten dela esan didate. Gainera, kontatu dit bazkaltzen zeudela umek kontatu ziela zer egin zuten nirekin aurreko egunean, animaliak imitatu eta zapi magia nabarmenduz. Honek oso konten jartzen nau, erantzun oso polita jasotzen dudalako bai umeengandik eta baita jangelako begiraleengandik ere.



4.SAIOA → Azaroak 5

Gaur, gelara iritsi baino lehen irakasle batekin topatu naiz eta ea zer moduz nagoen galdetu egin dit, ea zerbitzua aurrera doan eta gustura nagoen ala ez. Gero, patiora ematen duen atera hurbildu naiz gelakideak deitzera. Denak ikusi nautenean korrika etorri dira gelara, jolasteko prest. Gaur ere 6 egon dira eta nahiko mugituak gaur ere.

Borobilean eseri eta bi umek Amets besarkatu dute, bere txokoan utzi baino lehen. Lehenengo jarduera azaldu dut, musika jarri (En Tol Sarmiento, Ametsetan) eta ibiltzen hasi gara. Hasieran denak nire atzetik ibiltzen ziren baina esan diet espazio osotik ibili behar zirela eta bakoitzak bere bidea egin du. Gero, zoru-desberdinen egoerak esan dizkiet.

Hasteko lur irristakorra, denak gainetik ibili gara irristatuko bagina bezala eta ume batek zera esan dit: “Ni lurretik joango naiz, pingüino bat bezalaxe” (Tolosa). Gero, lokatza zela esan diet, ume batzuk poliki poliki joan dira, beste batzuk aldiz saltoka, lokatzen ibiltzea gustatzen zaiela esanez. Esandako zoru ezberdinak errespetatu eta interpretatu dituzte.

Gero, museoaren jolasean ibili gara. Asko gustatu zaie, uste nuena baina denbora gehiago pasa dugu jarduera hau egiten. Hasieran, Laura gelatik atera da eta nik esandako museoa egin dugu: beldur museoa. Denak beldurra bagenu bezala jarri eta gelditu egin gara estatuak bezala. Prest egotean Laura sartu, paseo bat eman museotik eta asmatu behar zuen. Gero Laurarekin ume bat joan da eta berriro museo desberdin bat egin dugu. Hasieran nik esan ditut museoak: haserre museoa, animaliena, lanbideena...baina gero gure artean hitz egin eta umeek esan dituzte, hala nola: hulk, dinosauroak, zonbiak, robotak, printzesak, gelatina...Orokorrean erraztasun osoz asmatu dituzte, batzuei gehiago kostatu zaie eta bigarren aukera bat eman diegu, estatuak mugitzeko aukera zuten. Gehien kostatu zaiena; norbaitek asmatzen ez bazuen txibatu egiten zirela.

Jarduera horrekin jarraitu nahi zuten baina beste jolas bat azaldu diet, zein dago desberdin? Borobilean eseri dira eta banan-banan belarrira animali bat esan diet. Denei txakurra esan diet ume bati ezik, katua esan diodala. Denak hasi dira esandako animalia egiten eta asmatu egin dute zein zen desberdina. Azkeneko rondan zailagoa jarri dut oso azkarrak baitira, denei olagarroa esan diet eta bati txoria. Oso interesgarria da ikustea nola adierazten duten umeek olagarroa. Batzuk besoak astinduz egin dute, beste batzuk lurrean etzanda hankak eta besoak mugituz. Txoria aurkitu egin dute, baina asko sartzen ziren haien paperean eta ez ziren asko fijatzen ea zein zegoen desberdin.

Dantza txipi txipi egin dugu, umeek ez zuten ez abestia ezta dantza ezagutzen beraz guk asmatu dugu dantza. Lerro batean jarri dira txaloka eta ni haien aurrean saltoka alde batetik bestera. Etribilloa iristean ume baten aurrean jartzen nintzen eta asmatutako dantza txikia egiten genuen (Eskua goraka, gero bestea eta buelta). Parean jarritako umea ere korroan jartzen zen nirekin ni beste ume baten aurrean jartzeko eta berdina egiteko, denak korroan ginelarik. Hemen ume bat nekatua zegoen eta ez du parte hartu. Ametsengana joan da eta berekin egon da etzanda. Besteek hainbat aldiz egin dugu dantza txipi txipi, azkar ikasi dute dinamika baina dantzarekin arazo gehiago eduki dituzte, gehien bat abestiaren erritmoa jarraitzearekin. Ez zekiten noiz jarri behar ziren bestearen parean.

“Nik etxetxo bat daukat” abestia ikasi eta interpretatu dugu keinuekin. Lehenengo rondan tono normalean egin dugu, hurrengoan haserre, tono altuago batekin eta haserre

aurpegiarekin, eskuaren mugimenduak askoz ere esageratuagoak ziren. Gero xuabe-xuabe egin dugu eta erabat kontrolatu dute ahotsa eta mugimendua. Gero poz pozik...horrela hainbat emozio desberdinekin egin dugu. Ume bat hemen ere nekatua zegoen eta ametsekin egon da.

Azkenik, nola sentitu naiz gaur? egin dugu. Gaurkoan bi umek esan dute haserre sentitu direla, bat nekatua egon dena izan da, eta besteak kopiatu egin dio. Beste guztiak oso pozik egon direla kontatu didate.



Harremani dagokienez, denak denekin ondo eramaten dira. "Arazo" bakarra, ni borobilean esertzen naizenean nire ondoan eseri nahi dutela eta eztabaida txikiak sortzen direla. Baina azaldu egiten diet orain bat eseriko dela eta gero bestea eta ulertu egiten dute.

Oso maitakorrak dira, haien artean askotan besarkatu egiten dira, zerbait azaltzen nagoela edota jarduera erdian.

Askotan jolas bat egiten ari gara eta Ametsena doazte, posturaz mugitzen dute eta berriro jolastera datoz. Edota borobilean esertzen bagara hurrengo jolasa azaltzera amets hartu eta borobilean jartzeko ohitura ere hartu dute.

Gaur, ume lotsatiena (Irun) saltoka jarri da eskua altsatua “Ni, Ni, Ni!!!” esaten parte hartzeko. Horrek oso konten jartzen nau, irekitzen ari delako. Hunkitu egiten nau honek, pixkana pixkana gauzak lortzen ari naizela ikusten baitut.

5.SAIOA → Azaroak 6

Gaur ostirala, aste honetako azken eguna izan da! Gelara iritsi eta patioan zeuden umeak, deitu egin diegu eta korrika etorri dira gelara, berokiak pasilloan utzi eta gelara sartu dira. Gaurkoan ere 6 ume egon dira. Borobilean eseri gara, Amets mahaiean ahaztu dudalarik, ume bat altxatu eta honako hau esan du: “Amets, ez dago bere tokian, txokoan utziko dut!” (Hernani). Borobilean eseri, bazkaldu dutena kontatu eta lehenengo jarduerari hasiera eman diot.

Semaforo jolasa egin dugu, borobilean jarri gara zutik eskutik helduta eta jolasa azaldu diet. Semaforoak zein kolore ditu? eta haiek erantzun didate: gorria, berdea eta laranja. Hasieran nahastu egin naiz eta zera esan dut gorria=salto aurrera eta ume batek erantzun dit “baina naroa, gorriak esan nahi du gelditu egin behar garela” (Tolosa). Nahastu egin naizela konturatu eta arrazoia eman diot Tolosari. Beraz gorria=salto atzera. “Kolore-kolore” abestia jarri dut eta koloreak esaten joan naiz, primeran eta lehenengoan harrapatu dute jolasa. Behin denek jolasa nabarmendua zutela, ume bati pasa diot koloreak esateko kargua. Primeran pasatu dugu, eta ume guztiak arduraduna izatetik pasa dira. Haien agintzeko jarrera edota protagonismoaren papera ebaluatuz.

Gaur ere oso mugituak egon dira, eta hurrengo jolasa trenan izan da! Ilara batean jarri, musikari eman eta bata bestearen atzetik helduta joan gara. Musika gelditzerakoan azkeneko umea aurrera joan behar zen besteen hanka azpitik, askok par batzuk botatzeko hankak justu-justu jarri dituzte pasatzeko moduan, ni eta guzti pasa naiz!

Gero, itzalaren jolasa egin dugu. Uste nuena baina askoz ere hobeto egin dute. Galdetu diet badakizue zer den itzala? eta ume batek nire itzala seinalatu du honako hau esanez; Tolosa: “Hori zure itzala da eta zuk egiten duzuna kopiatzen du”. Binaka jarri dira eta bat bestearen itzala izan da. Oso aberasgarria izan da, bikote bat tokian gelditu da gorputz atalak mugituz eta itzala begiraturaz, beste bikote bat aldiz espazio osoan zehar ibili da, dantzan, krixkitin egiten...Gero, rol aldaketa egin dugu.

Hurrengo jolasa azaltzera nindoala, ez ziren geldirik egoten eta orduan jolasa, dada zutik azaldu dut, bakoitza korrika ibili behar zen nahi zuen tokitik eta nik seinalatzean bere izena

altuan esan eta korrika joan behar ginen beregana. Hasieran oso ondo bete dute, baina gero bakoitza bere bolara zihoan eta jardueraz aldatu dut.

Trikitixa dantza egin dugu, lehenengotik harrapatu dute eta oso dibertigarria izan da. Mugimendu guztiak egiteko trebeak izan dira.

Azkenik lurrean etzan gara musika lasaiarekin eta nola sentitu naiz gaur egin dugu. Gaurkoan, hasieran hiru umek haserre kasillan jarri dute haien bagoia, galdetu egin diet ea zergatik eta zera esan dute: “Broma da! oso pozik egon gara jajaja” (Irun, Hernani eta Oiartzun). Honela gelditu da gaurko ebaluazioa:



Ume bat dago beti atentzioa bilatzen duena, berak ez badu ume baten eta nire atentzioa triste balego bezala jartzen da (negarrez bezala). Horregatik gehienetan norbaitekin dago beti.

Agintari paperean jartzen direnean batzuk besteak baina konfiantza gehiagorekin hartzen dute kargua. Hala ere, oso haur maitakorrak dira, eta aukera dutenean nire gainera botatzen dira, nire hanketan eseri edota besarkada bat eman.

Gaurko saioko jarduerak era batean antolatuak nituen baina gaur klasean ordena aldatu egin dut. Gehien bat umeen jarrerarekin bat datorren jarduera burutzen dut. Esaterako, umeak oso mugituak badaude jolas mugitu bat egiten dugu, aldiz lasaiago badaude konzentrazio gehiago behar duen jarduera proposatzen dut.

Harremani dagokienez, Tolosa eta Urnieta ia beti batera daude, Irun eta Oiartzun askotan elkarren ondoan jartzen dira, Andoain askotan ere Urnietarekin, eta Hernani bera bakarrik. Hernani, lider naturala da, oso azkarra eta beti parte hartzeko prest. Azalarazten dituen esaldi guztiak oso interesgarriak dira.

6.SAIOA → Azaroak 16

Aspaldiko partez, gaur elkartu egin gara berriro ere! Gelara joan gara eta beti bezala patiora gerturatu gara, ikusi gaituzte eta denak korrika etorri dira gelara jolasteko gogoz. Gaur 5 bakarrik egon dira, baina nahiko aztoratuak egon dira saio osoan zehar. Gainera haietako bik oso gutxi hartu dute parte, deskantsatu nahi zutela esanez ametsekin besarkatuak egon dira sofan.

Borobilean eseri gara eta bazkaldu dutena kontatu didate eta gero Ametsek agurtu ditu, denek "KAIXO AMETS" esan dute buiaka eta bere txokora eraman dute. Batzuk harengana gerturatu eta besarkada bat eman diote nahi zutelako. Borobilean eseri eta lehenengo jolasa azaldu dut, besarkadena. Oso ondo ulertu dute jolasa hasieratik eta musika gelditzerakoan kide bat besarkatzera zihoazten. Horrelako batean, Ume bat bikote gabe gelditu da eta Amets besarkatu du. Batzuk beti bikote berdinarengana joan dira besarkatzera. Dantzan ginela abesti lasai batekin "katu bi", lider bat argi ikusi da. Gaurkoan espazio osoan zehar ibili beharrean denak baten atzetik joan dira, harek egiten zuena pixkat imitatuz. Nahiz eta horko ume bat batzutan atzetik joan eta beste batzuetan bere kabuz. Jarduera honetan denek parte hartu dute.

Jolasa egin eta gero zera esan dit Andoainek "El otro dia como no estabais fuimos a buscaros al pasillo". Hau da aste bat egon da tartetik joan ez garena eta gure bila joan ziren. Horrek pozik jartzen nau, egiten ari naizena gustatzen zaielako.

Hurrengo jarduera azaltzera nindoala...denak nire gainera bota dira eta besarkada handi bat eman dugu. Eta jarduera azaltzen saiatu naiz baina bat sofara joan da Ametsekin, eta beste bat bere atzetik. Gaurko saio osoan zehar Oiartzunek egiten zuena egiten zuen Andoainek. Gainera, Andoainek gaur atentzioa nahi zuen denbora osoan. Gehituz ikasi jolasa egin

dugu, eta ez da oso ondo atera...um batek lehenengoan ulertu du baina besteei kostatu egin zaie...Gainera ez ziren tokian gelditzen eta orduan zaila zen gogoratzea. Honela egin dugu: “Ni Naroa naiz rugbilaria” + “Bera Naroa rugbylaria eta ni Hernani korrikalaria” + Urnietaren txanda iritsi da eta ez du aurrekoa errepikatu, “rock and roll” ohikatu du jolasa hautsiz baina hurrengo Tolosa zela, dena errepikatu du. Egoera ikusita eta bi ume jolasten ez zeudela eta beste bi oso aztoratuak beste jolas bat egin dugu.

Bakoitza toki batean jarri da eta “egunerokoan” egiten duguna adierazi behar zuten gorputzarekin begiak itxita zituztelarik. Batzuk begi irekiekin egon dira, beste batzuk oso adi esaten nuena entzuten eta primeran antzezten beste batzuk aldiz oso aztoratuak jarraitzen zuten. Gainera, ni esaten nengoela Tolosak esan du “Naroa, gosalduta baina lehen ilea lehortu behar dugu” nik esan ez dudalako, gogorarazi dit berak egiten duena. Nahiko desastre atera da eta 1, 2 eta 3 karabinbonban-era ibili gara.

Batzuk oso lasai ibili dira, poliki poliki eta estatuak balira bezala gelditzen. Beste batzuk aldiz korrika zijoazten denbora osoan eta ronda guztietan mugitzen harrapatzen zituzten. Halako batean Hernani kontatzen zegoela, Urnietaren denbora osoan mugitzen ikusten zuen eta atzera bidaltzen zion baina ez zen atzera joaten eta holakoak esan ditu Hernanik: Urnietari dena argi uzten saiatzen. “Urnietaren atzera joan bestela ez du balio zu honera iristean”, “Mugitzen ikusi zaitut, segi atzera”, “Horrela ez da jolasten”...

→ Urnietaren protagonista izan behar da, bestela ez du kaso askorik egiten...kostatzen zaio besteen txanda errespetatzea eta gainontzekoak hitz egiten daudenean entzutea.

Denbora dezente pasa dugu jolas honetan, gainera ume asko kontatzen zeudela eta denak estatuak ginen bitartean guregana hurbildu eta moduz aldatzen gintuzten. Zeramikakoak bagina bezala.

Gero borobilean jarri gara eta Zer oparitu didazu? egin dugu. Hasieran bi ume Ametsekin zeuden eta ez dute jolasa entzun baina besteekin jolasean hasi gara eta haietako bat altxatu eta gurekin jarri da, ondoren beste batek hori ikustean ere etorri eta jolasten ibili gara guztiak. Belarrira gauza bat esan eta besteek asmatu behar zuten, oso ondo egon da, hasieran animaliak imitatzen hasi garelako baina adibidez ume batek besteak “haserre” emozioa adierazteko eskatu du, besteek animaliak edota ekintzak. Azkena, pixka bat zailagoa jarri dut ume bati zera esanez “fruta erosten zaude”, ez dute amastu baina interpretazioa ez da kaxkarra izan.

Saioari bukaera emateko ebaluazio tresna atera dut, eta zera galdetu dut gaur: Gustatu zaizue gaurko klasea? eta zein jolas gustatu zaien gehien... Batek esan du kara binbon ban jolasa asko gustatu zaiola beraz besteek ere hori esan dute. Honela gelditu da gaurko tren:



Andoainek esan du haserre zegoela, deskantsatu nahi zuelako denbora guztian eta ez jolastu. Besteek aldiz, oso ondo pasatu dutela kontatu didate eta Urnietak esan du gustatu zaiola baina momentu batean haserretu dela. Eta Hernanik zera gehitu du: “Ni beldurtzen naiz susto bat ematen didatenean”. Orokorrean gaur oso aztoratuak egon dira eta beste egunetan baina gehiago kostatu zait klasea aurrera eramatea. Hala ere, umeak oso kariñosoak dira.

Tolosak Urnietak egiten duen guztia egiten du, eta bere atzetik ibiltzen da beti. Urnietak ere gehienetan Tolosa bilatzen du baina beste batzuetan ez. Gainera, Urnietak izaera desberdina dauka, atentzioa nahi du eta esaten dituen gauzei zentzua hartzea zaila da. Hernani oso azkarra da, eta borobilean gaudenean jolas bat azaltzen nagoela eta norbait altsatzen bada askotan esaten die hori ez dela egiten eta entzuteko. Oso barneratuta ditu arauak eta beti erne dago. Gaur, Andoainek Oiartzunek egiten zuen guztia egiten zuen. Jolasten bazegoen bera ere jolasten, Ametsek bazegoen, bera ere Ametsekin.

7.SAIOA → Azaroak 17

Gaur egun zoragarria izan da, 6 ume elkartu dira gaur. Beti bezala, gelara iritsi eta patioa gerturatu naiz, denak korrika etorri dira. Ume bat falta zen baina nola atzo ez zen etorri pentsatu dugu gaur ere ez dela etorri...baina minutu batzuk pasata etorri egin da! Ilusio handiz datoz egunero.

Borobilean eseri baino lehen Amets agurtu dute eta bere tokian utzi, gaur ere ordu osoan zehar noizbehinka beregana jo dute besarkada bat ematera edo berekin egotera.

Borobilean eseri gara eta bazkaldu dutena kontatu didate, gero amonatxo-amonatxo jolasa azaldu diet. Jolasa hasi baino lehen pauso ezberdinak egin ditugu, erraldoiarena, dantzariarena, inurriena eta kamarrarroarena. Gero, ni pareta batean jarri eta beraiek parean jarri dira urrutira. Banan-bana joan dira galdetzen, hasieran ulertzea kostatu zaie baina gero primeran harrapatu dute jolasaren zentzua. Ume bat hasieran eserita gelditu da parte hartu nahi ez zuelako. Hasieran janaria aurrekoari kopiatzen zioten, baina jolasa uarrea joan ahala janari gehiago atera da. Ume batek galdetu behar zuenen lotsatu egin da eta ez zaio ezer bururatu, beste bati eman diogu txanda. Denek parte hartzea nahi nuenez hurrengo rondetan pausoak taldeka eman ditugu banaka beharrean. Ia ume guztiak pasa dira amonatxo izatetik eta denbora dezente pasa dugu jolasean.

Hori eta gero, dantza ezberdinak burutu ditugu: balleta, break dance, rapero, euskal dantza, zumba, sabel dantza, tango, flamenko eta rock. Pixkat desmadre izan da jolas hau musikarekin arazoak izan ditudalako, hala ere oso ondo atera da. Batzuk haien kabuz egiten dute dantza beste batzuk aldiz ondokoari kopiatzen diete. Zumba egin dugunean ume batek zera esan du "Nik zumba egiten dut" beraz berak egiten zuena egin dugu besteok. Rock ez zegoen nire ideian sartua baina beraiek eskatu dute eta jarri dut. Denek primeran adierazi dute eta askatu egin dira.

Ondoren, egunkaria atera dut eta izugarrizko emaitza jaso dut. Ume bakoitzak egunkari zati bat hartu du eta ekintza desberdinak burutu dituzte, behin eta berriro desegiten zuten material gehiago sortuz. Hala nola: txanoa, hegazkina, gerrikoa, baloia, yogarako esterilla, makina, beisbol, saskibaloiko baloia, baita futbolekoa ere, maskarilla, goxokia...oso aberasgarria izan da.

Gero bikoteka jarri diet eta nahi zuten objektua sortuz ipuin txiki bat burutu behar zuten. Txundidtu gelditu naiz. Laura eta biok egin dugu hasieran gure egunkariak: abaniko bat eta goxoki bat zirelarik. Gero Hernani eta Irun atera dira, batek ezpata zuen eta besteak eskudoa eta borrokatu egin dute. Gero, Urnieta eta Andoain, bat esterillan yoga egiten ari zen eta gero pertsona gaizto bat joka. Eta azkenik Tolosa eta Oiartzun, batek hortzak zituela eta beste batek hegazkina. Hemen bukatu behar zen jolasa, baina berriro atera nahi zuten haien material berria erakusteko eta geratzen denbora osoa hortan aritu gara. Oso motibatuak ikusi ditut, baita Irun ere. Banaka atera dira gauza ezberdinak antzetzten egunkariari ekintza berri bat emanaz. Hala nola, eskularruak egin ditu batzuk, beste batek baloia, beste batek zaldia...Oso dibertigarria izan da. Batzuei oraindik gorputzarekin adieraztea gehiago kostatzen zaie beste batzuei baino. Haien sormena izugarria da, erabateko parte hartzea eman da jolas honetan.







Gaur denek primeran pasatu dute eta nabaritu da! Denek eskatu didate egunkaria berriro ere eramateko!




8.SAIOA → Azaroak 18

Gaur ere izugarizko eguna izan da, egunero bezala gelan ikusi gaituzte eta korrika etorri dira guregana. Gaurkoan 6 egon dira, nahiz eta saio erdian bat joan behar izan den...Amet atera eta bere txokora eraman dute.

Txoko horretan, gure etxea edota kobazuloa eraiki behar genuela azaldu diet maindire batekin...pixkat desastrea izan da, jada ondo zegoela ematen zuenean berriro ere hausten zen. Bi umek zera esan didate “Naroa nik lagunduko dizut” eta “Naroa nik eutsiko dut hemendik”. Ikusita ez zebilela ondo, gelako argia itzali, persianak jetsi eta paretean bertan ibili gira itzalarekin jolasten. Izugarrizko jarduera izan da, ume batek izan ezik denek parte hartu dute birritan, baita gure gelako ume lotsatia ere, horrek asko poztu nau. Banan-bana atera dira eta istorio desberdinak asmatu dituzte, dinosaurioen inguruan, Amets elefantearekin, tximeletak, lagunak, borroka, erori...Izugarrizko sormena daukate eta asko gustatzen zaie erakustea. Denak adi egon dira haien gelakideek egiten zutenaren zain. Denbora pila bat egon gara jarduera honekin, oso gustura zeudelako eta emaitza zoragarriak ateratzen ari zirelako. Gainera ume batek zera esan du “Y si todos hacemos algo con las manos? quedará guay”. honelakoak atera dira:







Gero, borobilean eseri eta nire poltsikotik maskara bat atera dut (imaginarioa). Nire eskua zen maskara eta ondokoari pasa diot. Denek aurpegiak jarri ditugu eta oso dibertigarria izan da. Gainera, gero denek haien poltsikoetatek beraien maskarak atera dituzte eta aurpegiak aldatuz joan dira. Momentu honetan irakasle bat etorri da ume bat joan behar zelako. Denek agurtu egin dugu eta hurrengo jolasera joan gara.

Zenbakiak adierazteko oso trebeak izan dira, 1, 2 ,3 ,4 8, 9 zenbakiak egin dituzte lurrean. Gainera haien kabuz, adibidez 4 zenbakia sortzeko binaka edota taldeka jarri dira zenbakia sortzeko. Oso azkarrak dira.

Ume bat klase osoan zehar horrela egon da: "Naroa, hegazkina nahi dut"...Momentu batzuetan erne zegoen eta parte hartzen eta besteetan gelatik bueltaka zebilen. (Oartzun)

Hori eta gero zirkua montatu dugu, pailazoak, malabaristak, ekilibristak ginelarik...eta beste bati pasa diot narratzaile papera. Denak pailazoak izan gara...

Konturatzerako ordua zen, bera ebaluatzeko tresna atera dut eta honela gelditu da:



9.SAIOA → Azaroak 19

Gaur gelara iritsi eta jada umeak zai zeuden. Gaur ere 6 ume egon gara eta Gradu Aamierako Lan hinetako nire tutorea etorri da. Hasieran oso urduri nengoen baina gero oso seguru sentitu naiz.

Amets eman dit eta Argi Kutxa eraman dut. Elmerren ipuina kontatu diet eta istorioa osoan zehar umeak erne egon dira. Gero ume bakoitzak bere istorio txikia kontatu du. Ahozko hizkuntza ere garatu egin dugu. Batzuk lotsatuagoak ibili dira, beste batzuk aldiz irekiagoak. Ume batek ez du parte hartu, nahi ez zuelako. Izugarrizko istorioak kontatu dituzte. Oso hunkigarria izan da haien eboluzioa ikustea eta beren sormenetik ateratzen diren istorio horiek entzutea.

Hernani: “No te pongas tan cerca que te van a poner gafas” eta “Ixo, antzerkia egiten dagoela”

Denbora gutxi gelditzen zenez, zeramikaren jolasa egin dugu eta ebaluazioa. Honela gelditu da:



Andoain haserre egon da, hasieran Hernanik bere tokia kendu diolako.

10.SAIOA → Azaroak 20


Gaur azkeneko eguna izan da!! 6 ume etorri dira eta beti bezala gu gelara iritsi eta patiotik korrika etorri dira.

Zubiri-zubiri jolasarekin hasi gara, oso ondo pasatu dugu eta umeak beraien artean oso justoak dira. Bakoitza alde batean jarri beharrean ikusi egiten zuten zenbat jende zegoen bestearen atzean eta horren arabera jartzen ziren. Azkeneko rondan denak nire atzean jarri dira. Jolastem ari ginela ume bat lurrera erori da eta mina hartu du, segituan denak joan dira beregana eta besarkada bat eman diote, elkarlanean eta kooperazioan jolasten jarraitzeko.

Gero, dantza bat egin dugu eta abesti hori geroz eta azkarrago doa, oso dibertigarria izan da. Behin egin dugu eta berriro egitea eskatu didate.

Pirritx eta Porrotxen kartekin..izugarria izan da. Bakoitzak karta bat hartu eta antzeztu egin dute. Gero hirunaka jarri eta istorio bat kontatu behar izan dute: bi ama eta ume bat eta amona, argazkilaria eta gazte bat. Haiek adostu eta antzeztu dute.

Azken jarduera puxikekin izan da, bikote bakoitzak puxika bat izan du eta musikarekin dantzan ibili dira, puxikak lurra jo gabe. Gero denak lertu egin ditugu.





Denek besarkada handi bat eman didate eta agurtu egin gara.